

**CATÁLOGO DEL PAISAJE.
AREA FUNCIONAL DE
ÁLAVA CENTRAL**

**PAISAIAREN KATALOGOA.
ARABA ERDIALDEKO
EREMU FUNTZIONALA**



4. DOKUMENTUA

PAISAIAREN PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA ANTOLAMENDUA.
PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK, NEURRIAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

PAISAIAREN KATALOGOA. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALA

Espedientearen kodea: 035SV/2019

2020ko abenduan berrikusia

LANEN ZUZENDARITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Jesús María Erquicia Olaciregui

Lurralde Antolamendu eta Plangintzarako Zerbitzuaren arduraduna

Rafael Sánchez Guerras

Arabako Lurralde Antolamenduko arduraduna

Victoria Azpiroz Zabala

Lurralde Antolamenduko arkitektoa

LAGUNTZA TEKNIKOA



Raquel López Hernández eta Pablo Sánchez Ramos

Koordinatzaileak

Enrike Diez de Ulzurrun eta Asis Arbide

Itzultzaileak

AURKIBIDEA

1	SARRERA	7
	LEGEZKO ESPARRUA.....	7
2	PAISAIA KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO EREDUAK.....	9
3	ARABA ERDIALDERAKO PROPOSAMEN BATERATUA	10
	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK ARABA ERDIALDERAKO	10
4	JENDE KOKALEKUAK	13
4.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	13
4.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	14
5	JARDUERA EKONOMIKOKO EREMUAK (INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK).....	19
5.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	19
5.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	19
6	GARRAIO-AZPIEGITURAK	22
6.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	22
6.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	22
7	ENERGIA- ETA TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURAK	23
7.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	23
7.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	23
8	ERAUZKETA-JARDUERAK, ZABORTEGIAK ETA HONDAKINAK TRATATZEKO INSTALAZIOAK	25
8.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	25
8.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	25
9	NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO PAISAIAK	27
9.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	27
9.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	28
10	BASO-PAISAIA PRODUKTIBOAK	33
10.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	33
10.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	33
11	ONDARE, KULTURA, SINBOLOGIA ETA IDENTITATE ARLOKO BALIABIDEAK	35
11.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK.....	35
11.1	NEURRIAK ETA EKINTZAK	36
12	PAISAIA NATURALAK.....	37
12.1	PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK	38
12.2	NEURRIAK ETA EKINTZAK	39
13	INFORMAZIO-KANPAINAK BASOAK BABESTU BEHARRAREN INGURUAN, GIZARTEARENTZAT EKARTZEN DITUZTEN FUNTSEZKO ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK BALIOETSIZ.	41
14	ADIERAZLEAK	42
14.1	PAISAIAREN BILAKAERA-ADIERAZLEAK (pBa)	42
14.2	GARAPEN- ETA EZARPEN-ADIERAZLEAK (GEA)	42
15	BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK	43

1 SARRERA

Paisaiaren Europako Hitzarmenak (Florentzia, 2000) lurralde baten "paisaia jakin baterako Paisaiaren Kalitateko Helburuak" definitzen ditu "inguruko paisaiaren ezaugarriei dagokienez, herriek dituzten helburuen formulazio modura, eskumena duten agintarien aldetik".

Paisaiaren Kalitateko Helburuek (PKH) paisaia inplikaturik dagoen udal ekintza orori zentzua eman, bideratu eta zuzendu behar dituzte eta, oro har, gizartearen nahiak ez ezik, paisaia esku hartzen duten eragile guztienak ere barne hartu behar dituzte. Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ikuspegi honetatik, helburuen formulazioak lurraldearen antolamenduan paisaia zaindu, kudeatu eta antolatzeke politikan buru egin behar luketen printzipioak integratzea du helburu eta baliabiderik boteretsuena da paisaiak zaindu eta hobetzen laguntzeko garapen jasangarriko esparruan, bai eta bertako biztanleen bizitza maila adierazteko ere (López et al, 2011).

Oinarri hori abiaburu hartuta diseinatu dira Paisaiaren Kalitateko Helburuak eskuratzeko neurri eta ekintza egokiak eta aurreikuspena eta zuzenketako planteamendutik zuzendu edo bideratu nahi da paisaiaren bilakaera; honela, bada, etorkizunari begira, sektoreen arteko egoera gatazkatsuak saihesten dira eta paisaiaren baliabideari dagokionez, jada existitzen diren arazoentzako irtenbideak proposatzen dira. Azaldutako printzipio gidariekin bat, Paisaiaren Kalitateko Helburuak, ekintzak, neurriak eta gidalerroak formulatzeko garapena ia zuzenekoa da. Adierazi behar da haren emaitza 'irekia' dela, ebaluazioaren eta jarraipenaren bidez, adierazle-sistema batean oinarritua. Horri esker, prozesuan ari diren eragile parte-hartzaileek eta, prozesua garatzean sortuko direnek, balorazio egingo dute eta, kasua bada, irizpideak eta jokatzeko modu berriak hartuko dituzte, denboraren joanean lortu nahi den bilakaerara egokituak; haien artean, aipatu xedeak lortzeko bidea emango duten tresna berriak gara daitezke.

Paisaiaren plangintza, kudeaketa eta antolamendua kudeaketa-eredua paisaiaren katalogoaren egiazko zentzua da, funtsean lurraldea kudeatzeko tresna izan behar baitu. Aurreko faseak zuzendu dira, oraingoari estaldura emateko, horixe baita beren xede nagusia. Paisaiaren Kalitateko Helburuen formulazioan eta ekintzen proposamenean funtsatua dago bai paisaia-unitate bai PIBE guztietarako, diagnosi guztien artean egindako prozesu batean, fitxa bakoitzera eramandakoa. Esku-hartze unitateen, PU eta PIBEen berezko eredu horrek bere Paisaiaren Kalitateko Helburuak dauzka, helburu horiek lortzeko behar diren neurri eta proposamen zehatzek lagundurik, hau da, oinarritzen da oro har ezaugarritzen dituzten elementu eta osagaietarako proposamenean, bai eta kokagune eta osagai partikularretarako ere. Dena dela, Paisaiaren Kalitateko Helburuak eta ekintzak berdinak izan daitezke esku-hartze unitateen artean, dela planteamenduan, dela garapenean, baina haietako bakoitzaren espazioan zehaztuak. Agiri honek guztiek dituzten aspektu horiek garatzen ditu.

LEGEZKO ESPARRUA

Paisaiaren Kalitateko Helburuak eta ekintzen proposamenak 2000ko urriaren 20ko Paisaiaren Europako Hitzarmenean (PEH) jasotako printzipioak artatu nahi ditu batetik (Europako Kontseilua), espainiar estatuak berretsitakoa (2008ko otsailaren 5eko EAO) eta Espainian 2008ko martxoaren 1az geroztik indarrean dena, eta bestetik, 90/2014 Dekretuaren legegintzako esparrua, *EA Eren lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa*.

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren testuingurua

Euskal Autonomia Erkidegoa formalki atxiki zitzaion Paisaiaren Europako Hitzarmenari Jaurlaritzaren 2009ko uztailaren 21eko Erabaki bidez, atxikimendu horrek berekin dituen konpromisoak bere eginez; horien artean, azpimarratzekoa da paisaiak juridikoki aitortzen direla giza inguruaren oinarritzko elementu modura, kulturako ondare komunaren adierazpide modura eta nortasunaren oinarri modura.

Paisaiaren Europako Hitzarmenak agintzen du agintaritzak publiko eskudunek finkatuko dutela zein politika baliatu paisaia gaitan, printzipio orokorren multzoa, neurri bereziak hartzea bideratuko duten estrategia eta zuzentzarauak paisaia babestu, kudeatu eta antolatze aldera, ingurumeneko paisaia ezaugarri dagokienez biztanleen asmoak besarkatuko dituztenak.

Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ondorioetarako, honako definizio hauek ematen dira (1. art.):

- “paisaiak babestea” da paisaia baten ezaugarri esanguratsu edo bereizleak zaindu eta gordetzera zuzendutako ekintzak egitea, berez edo gizakiaren eskuaz sortu izanaren ondorioz duten ondare-balioak justifikatzen dituela.

- “paisaien kudeaketa” da, garapen iraunkorreko ikuspegia abiaburu hartuta, paisaiaren mantentze-lan erregularra bermatuko duten ekintzak egitea, gizarte, ekonomia eta ingurumen prozesuek eragindako aldaketak bideratu eta harmonizatzeko helburuarekin.

- “paisaiaren antolamendua” da aurrera begirako izaera duten ekintzak, bereziki indartuak, gauzatzea, paisaiak hobetu, lehengoratu edo sortze aldera.

Kontuan harturik Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko paisaietan aldaketak gerta daitezkeela datozen urteetan (azpiegiturak sortzea, hiri-hedapenak...), paisaiak antolatzeako estrategia bat diseinatu beharra dago, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren 5. artikulua ezarritako neurri orokorrei erantzute aldera:

- Paisaiak juridikoki giza inguruaren oinarritzko elementu modura aitortzea, ondare komun kultural eta berezkoaren aniztasunaren adierazpide eta nortasunaren oinarri modura.

- Paisaia gaitan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeako politikak zehaztu eta aplikatzea, horretarako beharrezkoak diren neurri berariazkoak hartuta.

- Publikoak, tokiko eta eskualdeko agintariek eta paisaia gaitako politikak formulatu eta ezartzean interesa duten beste alde batzuek parte hartze prozedurak finkatzea.

- Paisaia lurralde antolamenduko eta hiriko politiketan integratzea eta kultura, ingurumen, nekazaritza, gizarte eta ekonomia gaitako politiketan; baita, paisaiaren gainean eragin zuzeneko nahiz zeharkakoa izan dezaketen bestelako zeinahi politikatan ere.

90/2014 Dekretuaren testuingurua, EAEko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa

Dekretuaren xedea, bada, araututako baliabideak finkatzea da, hartara arauzko aurreikuspenak betearaztearren eta paisaia lurraldearen antolamenduan integratzeko helburua lortzearren. Horretarako, lehen-lehenik lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeako baliabideak identifikatzen ditu, hala nola: Paisaiaren Katalogoak; Paisaiaren Zehaztapenak; Paisaiaren Ekintza-planak; Paisaia integratzeko azterlanak; eta prestakuntza, sentsibilizazio eta laguntza neurriak (EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen berrikuspena). Oinarritzko agiria. 2015):

- *Paisaiaren Katalogoei dagokienez: Agiri deskribatzaileak eta aurrera begirakoak dira eta horien esparrua da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) definitutako eremu funtzional bakoitzeko paisaia, osotasunean hartuta. Katalogoen edukiak honakoa besarkatuko du: Ikus-eremu eta paisaia egiturak mugatu eta balioztatzea eta paisaia aldetik interes bereziko guneak bereiztea, duten berezitasun, narriadura, ikusgarritasun eta nortasunagatik edo estetika edo pertzepzioaren ikuspegitik ezaugarri nabarmenak izateagatik; paisaiaren konfigurazioan eragina duten prozesuak identifikatzea; ibilbideak eta paisaia behatzeko tokiak zedarritzea; paisaia-unitateak mugatzea; paisaiaren kalitateko helburuak zehaztea, biztanleriaren beharrianak aintzat hartuta; helburuak eskuratzeko neurriak proposatzea; adierazleak proposatzea.*

- *Paisaiaren Zehaztapenei dagokienez: Paisaiaren Katalogoetatik ateratako irizpideak dira, paisaiaren kalitateko helburuak garatzen dituztenak, helburu horiek erdiesteko hartu beharreko neurriak identifikatuz. Dagozkien eremu funtzionalen Lurraldeko Plan Partzialei (LPP) txertatuko zaizkie.*

- Paisaiaren Ekintza-planei dagokienez: Paisaiaren Katalogoek identifikaturiko eta paisaiaren Zehaztapenetan jasotako interes bereziko eremuetarako esku-hartze baliabideak dira. Diagnostiko bat jasoko dute, eskuratu asmo dituzten paisaiaren kalitateko helburuez gain. - Paisaia Integratzeko Azterlanei dagokienez: Proiektu eta obren egikaritzak paisaiaren gainean eragin ditzaketen ondorioak aztertzen dituzten agiriak dira; baita, obra horiek paisaia integratzeko neurriak ezartzen dituztenak ere. Azterlan horiek paisaiaren deskribapena, proiektuaren ezaugarriak eta paisaiaren integrazio irizpideak barnebilduko dituzte.

- Sentsibilizazio-, prestakuntza-, ikerketa- eta babes-neurriei dagokienez: Euskal Administrazio Publikoak eta sektore publikoko erakundeek beharrezko diren ekintzak bideratuko dituzte paisaia modu egokian babestu, kudeatu eta antolatzeko, betiere lurraldearen antolamendu orekatu eta jasangarriaren baitan.

Azkenik, komeni da gogora ekartzea badirela paisaiaren baliabidearekin elkar eragiten duten beste lege batzuk eta horien ezarpena aintzat hartu behar da. Hiru dira lurraldea antolatzeko tresnak eta horietako bat, hain zuzen ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak osatzen du, beste biak formulatzeko oinarri eta erreferentziazko esparru orokor dena, hau da, Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sektorialak.

2 PAISAIA KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO EREDUAK

Sarreran adierazi dugun bezala, Dokumentu honek garatu egiten du PU, PIBE eta esku-hartzeko unitate guztietarako planteatu den kudeaketa-eredua. Ereduaren irakurketa arintze aldera, bi mailatan sailkatu da. Lehen mailak Paisaiaren Kalitateko Helburuak lortzeko proposatu diren ekintzen izaerari erantzuten dio, Paisaiaren Europako Hitzarmenean ezarritako irizpideekin bat:

- Babesa. Kontserbaziorako PKHak lortzeko (P).
- Kudeaketa. Paisaiaren balioak mantendu eta hobetzeko (G)
- Antolamendua. Paisaia hobetzeko edo birgaitzeko (O).
- Paisaiaren balioa nabarmendu eta hedatzea (D).

Bigarren mailak paisaiaren izaerari erantzuten dio, eta era berean, lurralde-espazioen erabilera nagusiari eta jarduera ekonomikoak eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesu nagusiei. Horrela, kategoria bakoitza bigarren sailkapen-maila batean banatua dago:

- Eremu Funtzionalerako PKHen multzoa eta ekintza komunak (AF).
- Jende kokalekuak (A).
- Jarduera ekonomikoetarako eremuak (industriak eta zerbitzuak) (I).
- Garraio-azpiegiturak (T).
- Energiarako eta telekomunikazioetarako azpiegiturak (ET).
- Erauzketa-jarduerak, zaborteak eta hondakinak tratatzeko instalazioak (EX).
- Nekazaritza eta abeltzaintzako paisaiak (AG).
- Baso-paisaia produktiboak (F).
- Paisaia naturalak (N).
- Ondare, kultura, sinbologia eta identitate arloko baliabideak (RP).

Bigarren mailak egituratzen du Dokumentu hau, lurralde-espazioak kudeatu, antolatu eta erabiltzeko tresnetan errazago txertatze aldera.

3 ARABA ERDIALDERAKO PROPOSAMEN BATERATUA

PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK ARABA ERDIALDERAKO

Lehenik eta behin, diskurtso 'komun' eta bateratu bat formulatu beharra dago Araba Erdialde osorako, paisaien bilakaera gidatzea errazteko eta proposamenaren koherentzia ziurtatzeko. Lurraldea antolatzeke gidalerroetan paisaiari begira proposatzen diren helburuak berak ditu abiaburu:

LAGen HELBURUAK PAISAIAREN ARLOAN

- 1.- Paisaia lurralde- eta hirigintza-plangintzarako tresnen prestaketan eta garapenean txertatzea.
- 2.- Paisaia bere osoan baloratzea, hau da, natura- eta hiri-paisaiak kontuan hartuta, hala kalitate onekoak nola degradatuak, bai eta lur azpikoak ere.
- 3.- Herritarren parte-hartzea sustatzea, hala paisaiaren balorazioan, nola paisaia-kalitatearen helburuen zehaztapenean, eta, era berean, paisaia horiek gizarte kolektibo bakoitzarentzat memoria-leku gisa ezaugarritzen dituzten ondare-elementuen identifikazioan.
- 4.- Paisaiak kalitate-faktore gisa duen balioa nabarmentzea, gizartearen, kulturaren, ekonomia- eta ongizatearen ikuspegitik.
- 5.- Denetarikoa paisaia-inpaktu negatiboak saihestea (ikusizkoak, soinuak eta usainezkoak) eta lurraldean garatzen diren elementuak eta jarduerak txertatzea; bereziki, azpiegiturak eta jardura ekonomikoko azpiegiturak.
- 6.- Behar diren azterlan, ekintza eta neurrietan sakontzea, energia berriztagarriak garatu eta ezartzea eta paisaia-ondarea zaintzea ahalik eta bateragarrien izan daitezen.

Katalogo honetan buru egiten duen hats orokorra **Eremu Funtzionaleko paisaia-balioak zaintzea da eta horiek lurralde-esparru heterogeneo eta askotarikoan islatzen dira, naturaletatik hasita guztiz eraldatu eta oso dinamikoak direneta hartzen dutenak**. Lanerako baliabide sorta eskaini asmo da, paisaiak dituen erabileren eta urteen poderioz sortzen diren artean integrazio harmonikoa izango duen kudeaketa eta antolamendua bideratuko duena, zeinahi dela ere horren izaera: naturala, nekazaritzakoa edo eraikitakoa. Hitz labur esateko, paisaiaren balioak zaindu eta hobetzea, jardura ekonomiko iraunkorrekin modu koordinatuan, bertako biztanleak harro egoteko paisaia izan dadin eta bizi-maila hobetzen lagun dezan.

Printzipio gidari nagusia, hau da, planeamenduan gidatu behar duen Paisaiaren Kalitateko Helburua, hau da: ***paisaia-baliabidea sartu eta pisu handiagoa eman plangintza fisikoan, alternatiben analisian eta jardueren nahiz garapenen kokapenean (AF 1)***. Paisaiarekin batera, azpiegitura berdeak, garapen jasagarriak, klima-aldaketarako egokitzapenak eta landa-ingurunearen despopulazioa geldiarazteko politikek lurralde-antolamenduaren, -plangintzaren eta -politiken zutabeak izan behar dute.

Paisaian eragin negatiboa izan dezaketenak (industrialde berriak, energia-eremu berriak, erauzketa-eremuak, zabortegiak, plataforma logistiko handiak...) paisaiaren kalitate gutxieneko eremuetan edota paisaiaren balioak eta beste lurralde-baliabide batzuk ahalik eta gutxien galtzeko moduko alternatibetan jartzea pentsatu beharko litzateke. Printzipio horrekin batera, Araba Erdialdeko etorkizuneko garapenean, funtsezkoa da beste gauza bat ere kontuan hartzea: **paisaia hirigintza-arauetan era eraginkorragoan txertatzea**.

Halaber, **paisaia lurraldearen baliabidea da eta balioa eta hedapena emateak** bertako biztanleen bizi-mailaren hobekuntzan eragin zuzena du. Gizarteak baliabide hau orokorrean preziatzea bultzatu nahi bada, **zabalkundea**

ematea da lehen-lehenik urratu beharreko bidea eta honenbestez, lurralde batekiko atxikipena; horrek guztiak zaindu, hobetu edo kudeatzeko neurriak eskatzea eta hartzea ekarriko du (**AF-2**).

Gogoan izan behar da hobetzeko mahairatu diren helburuetarik asko jarduera pribatuarekin daudela lotuak. Batzuetan, laguntza publikoak pizgarri izango dira hobekuntzak txertatzeko. Ordea, hobekuntzak ez zaizkio bide honi soilik meneratuko, izan ere administrazioen aurrekontua mugatua izan ohi da eta ez dira beti helburu hauetarako behar hainbateko kontu-sailak bereizten. Bada, biztanleak herrietan estetika bat izatera inplikatzeko, bertako paisaiak zaindu eta hobetzera, azken batean, biztanleria osoaren bizi-kalitatean eragina duen zera da. **Balioa emateak** lurraldearen garapena osa dezake, egungo turismo guneak alde batera utzita.

Estrategia orokor gisa, paradigma-aldaketa bat lortu nahi da paisaiaren eta lurraldearen gaineko ikuspegiaz. Kanpo-efektuak direla, kanpo-efektuek sortzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak direla (CO2 finkatzea, uraren zikloa eta biodibertsitatea) eta gizarte guztiarentzat arriskuak kontrolatzea dela (baso-sute handiak, kasu), beharrezkoa da herritar guztiengana zabaltzea kontserbazioaren ardura.

Dena den, Eremu Funtzionalan Gasteiz kokaturik badago ere, eta Gasteiz izanik ere Arabako probintziako hiri-nodorik garrantzitsuen eta Arabako biztanleriaren erdia baino gehiago biltzen duen udalerria, nabarmendu behar da Eremu Funtzionalak nagusiki nekazaritza- eta abeltzaintza-izaera duela, bai eta baso-izaera ere, landa-munduko dinamika sozioekonomikoei lotua, beste lurralde batzuetan gertatu bezala: hau da, despopulatzea, eta klima-aldaketak mehatxatutako natur ingurunearen kontrolik eta kudeaketarik eza. Nekazaritza-abandonua, batetik, belaunaldi txandaketarik ez dagoelako eta maskulinizazioa gertatu delako, eta bestetik, intentsifikazioa gertatu delako, horrek paisaiara degradazioa dakarrela: hau da, monolaborantzarako espazio handiak (basogintzakoak nahiz nekazaritzakoak), azpiegitura eta nabe inpaktagarriak, mosaikoen eta biodibertsitateko osagaien galera, kutsadura handitzea, etab.

Mendiko paisaia oro har kontserbatuko bada, bai eta nekazaritza-basozaintzako paisaiak ere, bereziki, lurraldeari lotutako biztanleria behar da, eta sektore-legedi egokia ere, biztanleria mantentzearen eta paisaia mantentzearen arteko oreka korapilatsua erdietsiko bada. Bai zerbitzu ekosistemikoen kontserbazioa, bai arriskuak paisaia kudeatuz kontrolatzea, bi-biak, **biztanleriari eusteko eta erabilera tradizionalak berreskuratzeko politikak finantzatzera bideratu beharko** lirateke, betiere egungo egoerara egokituak, eta **nekazaritza-jarduera estentsiboa sustatzera** (nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza), beste erabilera batzuekin batera kontserbatua baitago, paisaiaren zati bizi gisa eta lurraldea kontrolatzeko modu gisa, zerbitzu ekosistemikoak babeste aldera eta sute-arriskua murrizte aldera. Lehen sektoreko jarduera sustatzearekin batera, beste zutabea giza baliabideak dira, hau da, profesionalen osaturiko kidego iraunkor bat sortzea, tokiko herriei lotutakoak, lurraldea hobetu eta babesteko, bazterrak zaintzeko, masen egoeraren jarraipena egiteko eta, oro har, mendiari lotutako lanez arduratzeko (baso-zainketak, sarbideak, mintegiak...) (Sánchez *et al*, 2019b).

ARABA ERDIALDERAKO NEURRIAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK

AF-1 Paisaia-baliabidea sartu eta pisu handiagoa eman plangintza fisikoan, alternatibien analisisian eta jardueren nahiz garapenen kokapenean.

1. Paisaiari buruzko azterlanak hasierako fasetik integratzea paisaian eragin txarra izan dezaketen garapen eta jarduera berriak kokatzeko alternatibien analisi-prozesuetan, kalitate baxuko paisaia duten eremuetan, edo hauskorak izanik, paisaia-balioen eta lurraldeko beste hainbat baliabideren galera minimizatzen duten alternatibien bitartez garatzeko aukera ematen duten eremuetan planteatu daitezten:
 - Bizitegi, industria edo hirugarren sektoreko garapenak.
 - Energia ekoizteko eta banatzeko azpiegiturak
 - Komunikaziorako azpiegiturak.
 - Erauzketa-jarduerak, zaborteziak eta hondakinen tratamendurako instalazioak.
 - Nekazaritzako edo basogintzako eraldaketak.
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako azpiegiturak. Azterlanaren hasieratik aintzat hartzea.
2. Paisaiaren Integratzaileko Azterlanak sartzeari, tresna hori aurreikusten delako Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen antolamenduan Paisaia babestu kudeatu eta antolatzearen gaineko 90/2014 Dekretuan. Gomendatzen da azken konponbidea erakusten duten infografiak eta simulazio fidelak eranstea, hala nola behar diren ikusizko azterketak, ebaluatzeak eta kontrastatu ahal izateko *Paisaiaren Katalogoa: balioak, kokagune eta osagaien gaineko eraginak, ikusizko irisgarritasuna* izeneko txostenaren emaitzekin.
3. Administrazio eskudunen arteko lankidetzak sustatzea, bermatu ahal izateko Paisaiaren Katalogoaren emaitzak Tresnetara eramaten direla:
 - Antolamendurako tresnetara eramatea identifikatutako Paisaia Interes Berezikoko Eremuak, babestu ahal izateko eta haien gaineko kaltea saihesteko.
 - Ingurumen eta paisaia arloetako jardunbide egokien eskuliburuak egitea.

AF-2 Paisaiaren eta eskaintzen dituen zerbitzuen balioa zabaltzea, kontserbazioa eta hobekuntza helburu dituzten politikak errazteko bide gisa.

1. Komunikaziorako tresnak erabiltzea, gizartearen paisaiaren balioespena eta sentsibilizazioa lantzeko. Horretarako, gomendatzen da administrazio desberdinen artean koordinatutako tresnak erabiltzea:
2. Kalitate handiko paisaia produktiboak lotzea handik eratortzen diren produktuekin, merkataritza berriaren balio gehigarri gisa aurkeztuz.
3. Paisaia naturalen zerbitzu ekosistemikoak (azpiegitura berdea) ezagutaraztea, haien kudeaketa eta kontserbazioa helburu duten politikak errazteko.
4. Herritarrei erraztea paisaiaren irisgarritasuna eta gozamena.
 - Begiratokiak egokitzea (Paisaiaren Kalitateko Helburuen II. Mapa).
 - Paisaiaren ezagutza sustatzea oraingo ibilbideen sarea erabiliz eta kudeaketara eramanez (kartelak, dibulgazioa) horrekin lotutako informazioa.
 - Paisaia-ibilbideak eta begiratokiaren irisgarritasuna ezagutarazteko mapak egitea eta zabaltzea, oraingo errepede eta bideen sarean oinarrituta.

4 JENDE KOKALEKUAK

4.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Kokaguneen dinamikak aldaketa izan zuen, handiagoa edo txikiagoa, desarrollismoaren garaian. Komenigarria da herrietako eta hirietako eskala desberdinak bereiztea, batzuetan alde zaharra eta zabalgunek bereizten baitira, eta beste batzuetan, berriz, dena bat da oraindik. Iragan mendearen azken aldian paradigma-aldaketa bat hasi zen, eta hirigintzako irizpide jasangarri eta integratzaileak finkatu ziren, nola administrazioen aldetik, hala lurraldean bizi diren pertsonen aldetik ere, bizi-kalitatea hobetzeko helburua duten ekintzak eskatzen dituztelako. Beste alde batetik, kokagune askok beren egitura mantendu bazuten ere, horietako batzuen itxura aldatu zen, eraikin berriak agertu zirelako, nekazaritzakoak eta abeltzaintzakoak, besteak beste.

Zabal onartutako nahia da itxura zainduko duen hiri-paisaia izatea, gizartearen beharrianen arabera berritu eta haziko dena, lurraldearen baliabideak arriskuan jarri gabe eta zerbitzu ekosistemikoetan krisirik eragin gabe. Ildo horretatik, hirigintza-plangintzak eta -hazkundera aintzat hartu beharko lituzkete historian barna kokaguneen kokapenen sistema zehaztu duten lurralde-irizpideak, izan ere, lekuaren eta bertako baliabideen ulermenetik, modu orekatuan integratu baitira, garatu diren lurraldean. Are gehiago gaurko testuinguruan, klima-aldaketa agertu delarik, faktore horrek, zalantzarik gabe, eraldatuko baitu ingurunearekin orain arte izan dugun harremana. Azken hamarkadetan gizateriak ahaztu egin ditu lekuen erritmoak eta intentsitateak, eta gogoak eman ahala jardun du, intentsitate handiz, lurraldeak onartzen zuenaren gainetik ere. Orain, berriz, aurre egin behar diegu klima-baldintzen egiturazko aldaketei, izan ere, orain arte ikusi ez dugun abiadan eragingo dieten klima-aldaerei, besteak beste, tenperaturari, hezetasunari edo prezipitazioei, eta gizateriarentzat arriskugarriak diren egoerak eratorriko dira hortik (Sánchez *et al*, 2019a).

Arreta jarri behar da eta paisaiaren ikuspegi holistiko eta integratzailea aprobetxatu, ukipen-eremuak zainduz, ertzak eta sarbideak hobetuz, gune baliotsuenak berpiztuz, hiri-gune historiko eta finkatuetatik hasi eta planifikatu eta garatzen ari diren multzoetaraino. Erronka handienetako bat izango da muga lausoak saihestea, erabilerak elkarren gainka antolamendurik gabe haztea, eta hirigintzaren arreta jartzea landa-gune / hiri-gune interfasean, kalteberatasun bereziko eremuak izango direlako, presio handien eragina jasan beharko dutenak. Askotan, hobetu daitezkeen inpaktu negatiboen kontzentrazioak handiena duten lekuak dira, hiri-guneen inguruan daudelako eta erraz ikusten direlako. Baina erronkarik handiena, zalantzarik gabe, beharrezkoa den agertoki-aldaketa onartzea da. Lurraldearen gainean eraldaketa eta ekintza planteatu baino lehen, gogoeta egin beharko da, ea beharrezkoa ote den egiaz ekitea, bere kasuan berriro dimentsionatzeko edo, beharbada, nekazaritza, abeltzaintza edo naturaren inguruko dinamikarako berreskuratzeko garai batean urbanizatzeko planifikatu baina oraindik garatu gabe dauden lurzoruak.

Babesa Jende kokalekuetan

- **PA.1.** Hiri-gune historikoen eta hiribilduen babesa eta kontserbazioa sustatzea (ikus gai-geruza Paisaiaren Kalitateko Helburuetan).
- **PA.2.** Balio handiko eta ikus-hauskortasun handiko guneen ikuspenaren babesa sustatzea (ikus gai-geruza Paisaiaren Kalitateko Helburuetan).
- **PA.3.** Hiri-gune tradizionalen eta herrixken itxura eta ingurunea babesteko eta zaintzeko tresnak abian jartzea eta garatzea (ikus gai-geruza Paisaiaren Kalitateko Helburuetan).

Antolamendua Jende kokalekuetan.

- **OA.1.** Hiriko ehunaren ertzeko zenbait eremu hobetzea eta tarteko guneak eraberritzea, hiriaren fatxada eta espazio publikoa sortzeko (ikus gai-geruza Paisaiaren Kalitateko Helburuetan).
- **OA.2.** Ikuspen hauskorrekoak diren eta osagai kaltegarriak dituzten hiri-inguruko eremuen antolamendua sustatzea (ikus gai-geruza Paisaiaren Kalitateko Helburuetan).

Jende kokalekuen kudeaketa.

- **GA.1.** Lurzoru planifikatuen eta etorkizuneko garapenaren kudeaketa haien integrazioa hobetzeko.
- **GA.1.** Hiri-gune tradizionalak eta herrixketako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea.

4.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK**PA.1 Hiri-gune historikoen eta hiribilduen babesa eta kontserbazioa sustatzea**

1. Paisaiaren integrazioarako identifikatutako hiri-gune historikoak eta hiribilduak babesteko eta berritzeko tresnak berrikustea eta egokitzea, espazio publikoaren hiri-berroneratzerako jarduketak planifikatuz, eta zaharberritzeko espedienteen kudeaketa hobetzea.
2. Ondarearekin (Kultura Intereseko Ondasunak) eta bide historikoekin lotura duten espazio publikoak hobetzea eta kontserbatzea.
3. Paisaiaren ikuspegitik, gomendatzen da barne hartzea –hiri-gune historikoaz gain- ikus-eragineko eremu osoa, eta orobat dinamika nagusiak eta ageri diren osagaiak. Katalogoak hainbat tresna eskaintzen ditu, esaterako hiri-guneen eta sarbideen ikus-eremuak eta beste osagai batzuekin duten harremana. Horiek erraztu dezakete paisaiaren integrazioan kontuan izan beharreko espazioaren identifikazioa.

PA.2 Balio handikoak diren eta ikus-kalteberatasuna duten guneen babesa sustatzea

1. Paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzea horri dagozkion tresnetan, paisaiaren babesarekin lotutako azpisailkapenarekin. Enklabe horiek barne hartzen dute gunearekin ikusizko lotura duen lurraldea, haren balioaren gainean eragina izango lukeelako gune horren aldaketak.
 - Edozein aldaketaren aurrean, gomendatzen da prestatzea paisaia-integrazioarako azterlanak, aldaketa horiek gunearen balioak kaltetzen ez dituela bermatzeko.

PA.3 Hiri-gune tradizionalen eta herrixken ingurua eta itxura babesteko eta kontserbatzeko tresnak abian jartzea eta garatzea

1. Hiri-gune tradizionalak eta herrixkak babesteko tresnak berrikustea, egokitzea edo proposatzea; usadio zaharreko egitura duten herri txikiak dira, hiri-zabalkunderik egin ez dutenak, eta paisaiaren Katalogoan identifikatuta daudenak. Ezaugarri horiek dituzten hiri-gunez gain, beraz, bertan saretzen dira 2/2006 Legearen 29. artikuluen 1. atalean *Landa-gune* gisa definitutako kokaguneak.
2. Arautegien esparruan aldaketak bultzatzea hiri-gune tradizionalen barneko aldearen kontserbazioa sustatzeko, haien irudiaren eta kanpoko itxuraren tratamendua ere kontuan hartuz:

Lehenengo jarduketak eskatzen du hiri-gune tradizionalak eta herrixkak identifikatzea, haien itxuraren kontserbazioa sustatzeko, bai hiri-gune tradizionala osatzen duten eraikin-multzoaren itxurari dagokionez, bai etorkizuneko jardueren garapenari dagokionez ere. Hiri-gune tradizionalen eta herrixken azterketak eta ezagutza egokiak bermatzen dute kokagune horien morfologia eta inguruarekin duten harreman berezia aintzat hartzea. Haien plangintza integratuak bermatu beharko du hiri-gune tradizionalen eta herrixken morfologiaren kontserbazioa.

Hiri-gune tradizionalen eta herrixketan hasierako proposamen bat prestatu bada ere, eginahal handiagoa eskatzen du xehetasunen eskalan (1:5.000), alderdi askoren aldetik, non inbariantek edo ezaugarriak aztertuko baitira, eta ez dira sartuko gune tradizionalarekin eta haren izaerarekin zerikusia ez duten lurzatiak eta eraikinak. Gune tradizionalaren lurzoruaren barruan, halaber, etxebizitzei lotutako nekazaritza-lanak txertatu ahalko dira, hala nola espazio libre-eraketa edo ekipamenduetarako eremuak, eta eraikin-izaera hartzea eragotziko da ahalik eta gehien.
3. Hiri-lur berriaren garapenaren aurretik, eraikinak zaharberritzea eta hiri-berroneratzea sustatuko dira. Gomendagarria da ez handitzea aurreikusitako lurzoru urbanizagarria, dagoenaren gaitasuna guztiz agortu

arte, edo beste adierazle batzuk erabiltzea, esaterako etxebizitza hutsen tasa. Une honetan urbanizagarria den lurzoruan, hazkundera "jasangarria" izatea, bertako hiri-gune tradizionalaren eredua babestuz.

Espazio horien urbanizazioa beharrezkoa izanez gero, garapen berriek bat egingo dute gunearen morfologia tradizionalarekin, barne dela lurzatien eta bideen espazio-eredua. Halaber, eraikin tradizionalak eta bertako zuhaitziak errespetatuko dituzte, eta minimizatuko dute ingurumen-balio handiko eta nekazaritzako lur emankorren okupazioa. Hazkunderaren gainetik jarriko da egokitzea topografiaren eta lehendik dauden bideen arabera, eta harresi eta itxitura esanguratsuenak zaintzea, banaketa orekatua ezarriz, eta proposatzen direneko gunearen ehunarekiko harmoniatsua. Nolanahi ere, hiri-ereduek berezkoak dituzten ehunen ezarpena saihestu behar da.

Gomendatzen da Paisaia Integrazioako Azterlanak egitea honako hauetan:

- lurzoru ez eraikigarrian egiten diren jarduketa publikoak, hots, interes publikotzat jotzen direnak.
- lurralde- eta hirigintza-planeamenduan aurreikusitako azpiegitura berriak eta dauden aldaketa (garraio, energia, ur-tratamendu eta hondakin arlokoak).
- Herriaren profilaren elementu nagusiei (elizak, dorreak, etab.) eragiten dieten jarduketak; bereziki, hirigune historiko bat ukitzen badu edo ikus-esposizio handiko eremuetan kokaturik daude.

Azterketa-esparruak barnebildu beharko ditu jarduketaren ikus-arroarekin gurutzatzen diren paisaia-unitateak. Aintzat hartu beharko dira paisaia-unitate horietarako ondorioak eta gomendioak eta, kasua bada, Jende Kokalekuen Elementuaren Fitxa ere bai.

4. Gomendatzen da hainbat gauza sartzeari hirigintza-planeamenduari hirigintza- eta eraikuntza-ordenantzetan, hots, bolumetriari lotutako erreferentziak (altuera, zabalera, teilatu-hegatsak, irtenguneak, hutsune motak), bai eta kolore eta akaberei lotutakoak ere, egitura morfologiko batean, multzoan integrazio harmonikoa eskainiko duena, baina ez seriatua. Interesgarria litzateke jardunbide onen eskuliburu bat eskaintzea.

Urbanizazioari dagokionez, arauak egitea gomendatzen da zoladura motei, hiri-altzariei, zuhaitzei, landaretzari, seinalizazioari eta abarri buruz, betiere herritarren parte-hartze aktiboa kontuan hartuta, adostasuna eta arauen onarpena sustatzeko.

- Hiri-gune tradizionalen eta herrixken barnean, edo lehendik dagoen kokaleku baten inguruan, eraikin berriak diseinatzeko jardunbide onen eskuliburu eskaintzea. Irizpide orokorrak eskaini behar dira, lurraldean ondo egokitutako ezarpena erraztuko dutenak, eta ahal den gehien murriztuko dutenak inguruko eraikinen ikuspegiak tratatzea. Saihestu behar da eraikin horiek zituzten kanpoko ikuspegiak galaraziko dituen hesia jartzea, edo eguzkia hartzeko zituzten baldintzak aldaraztea.
- Udal arautegiak jaso beharko ditu kokalekuak berezkoak dituen alderdiak, esaterako nagusi den tipologia, edo beste ezaugarri nabarmenen bat, eraikin berrientzat egokiak diren irizpideak ezartzeko. Ezaugarri horiek jasoko dituzte eraikinen tamaina eta proportzioak, eta sustatuko dute tamaina handiko eraikinak eraikin txiki gehiagotan banatzea, inguruko eraikinen ezaugarriekin egokituagoak izan daitezen. Nolanahi ere, hiri-gune tradizionaletan eta herrixketan egiten den edozein esku-hartze aintzat hartu behar du gune horren hiri-egituraren eskala, eta orobat esku-hartze horrek hiri-agertokian eragingo duen efektua.

Beste ezaugarri batzuk, esaterako geometria, materialak eta estalkien, hutsuneen edo zurgintzaren akaberak, edo kanpoko paramentuen formalizazioak, tradiziozko akaberen antzari eta lehen dauden eraikinen itxurari eutsiko diote. Eraikin berriek ez dute eraldatu behar gunearen profil tradizionala, eta eraikin tradizionalak dutenaren antzeko ezarpena bilatuko dute.

Plan berezien kasuan, gunearen morfologiaren eta oinarritzko ezaugarrien gaineko txosten bat egin beharko lukete (txertaketa topografikoa, bideen trazaketa, eraikinen tipologia, material espezifikoak, lurzatien tamaina eta morfologia, zuhaitzak, etab.), ezarriko duten antolaketak paisaia errespetatu dezan (batez ere, jarduketa urbanistiko integralak aurreikusten direnean), eta are gehiago, aurretik dauden baldintzak hobetu ditzan. Plan berezien eta partzialei dagokienez, gutxienez ere aztertu beharko lirateke jarduketaren ikus-arroarekin gurutzatzen diren paisaia-unitateei dagozkien ezaugarriak.

OA.1 Hiriko ehunaren ertzeko zenbait eremu hobetzea eta tarteko guneak eraberritzea hiri-fatxada eta espazio publikoa sortzeko.

1. Tresnak berrikustea eta egokitzea, dentsitatearen hazkundera aztertzeke eta planifikatu baina eraiki gabe dauden lurzoruen planteamendu berria egitea, etxebizitzaren ehunarekin jarraitasunean, proposamen komunean kontuan hartuz paisaiaren inguruko irizpideak.
2. Hiri-hazkunderen paisaia-integrazioa kudeatzea, une honetan erabiltzen ez diren lurzoru artifizializatuen berrerabilpena eta hiri-ehunaren dentsifikazio berria sustatuz.
3. Katalogoan jasotako hiri-guneen ertzak eraberritzeko eta haiei garrantzia emateko lanak sustatzea.
 - Hiri-berroneratzean eta berrikuntzan integrazioa eta itxura hobetzeko irizpideak erabiltzea, hiri-ehun degradatuenei garrantzia emateko helburuz.
 - Kalitateko paisaiak eragingo dituzten espazio publikoak sortzea eta erabilerarik gabeko eremuak berreskuratzea, edo jarduera bizitegi-eremutik kanpo eraman beharko litzatekeen eremuak, etab.
 - Hiriko zuhaitziak hobetzea eta zabaltzea, ingurunearekin bat datozen espezieak erabiliz.
 - Hiri-altzarien eta seinaleen aukeraketan paisaia-integrazioaren eta kalitate estetikoaren irizpidea hartzea. Gomendatzen da ezartzen diren lekuan hiriko paisaiaren kalitatea nabarmen gutxitzen duten osagaiak ordeztzea.

OA.2 Ikuspen hauskorrekoak diren eta osagai kaltegarriak dituzten hiri-inguruko eremuen antolamendua sustatzea

1. Paisaiaren Kalitateko Helburuen kartografian seinalatutako sarbideen ikus-eremuen hobekuntza erraztuko duten laguntzak sustatzea, paisaiaren gaineko inpaktuak minimizatzeko eta hiri-gune tradizionalaren garrantzia azpimarratzeko.
2. Hirigintza- eta eraikuntza-ordenantzak erabiltzea Paisaiaren Kalitateko Helburuen kartografian adierazitako sarbideei tratamendu berezia emateko, paisaiaren gaineko inpaktuak minimizatzeko eta hiri-gune tradizionalaren garrantzia azpimarratzeko.
3. Elementuen eta eraikuntzen paisaia-hobekuntza lurzoru ez eraikigarrian.
 - Paisaia-proiektuen bidez, inpaktu negatiboan txertatzea edo ezkutatzea erraztuko duten elementuak diseinatu eta txertatzea, ikuspeneko landare-balioak edo kultur eta arte arloko osagai bereziak sartze aldera.
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako nabe handiak paisaiaren aldetik birgaitu eta txertatzea.

GA.1 Planifikatutako lurzoruen eta etorkizuneko garapenen kudeaketa

1. Helburuak berrikusi eta planteatu behar da paisaia-integrazioarako irizpide komunak jasotzea hiri-kudeaketa jasagarrienaren eta integratuenaren parean.
 - Trantsizio-espazioetan funtzio anitzeko berdeguneak integratzea sustatuko da, zuzkidura- eta urbanizazio- gradu desberdinak onartuz; hurrenkera logiko eta arrazional bat erabiliko da, dinamika naturalek hiri-guneetaraino, erabilerak mailakatuz eta dibertsifikatuz, aisialdiarekin eta osasunarekin lotutakoak barne; orobat erabiliko dira nekazaritzako mosaikoa edo hiriko parkea, eta tarteko fasean ezarriko dira tokiko ekoizpeneko baratzak, aisialdikoak eta osasunarekin lotutako bidexkak.
 - Guneen hiri-zabalkundeak ez ditu kaltetu behar, ez eta ezkutatu behar ere, kokaleku bakoitzak berezkoak dituen paisaia-ezaugarriak edo -profilak.
 - Irizpide estetiko komunak sustatu behar dira, zabalkunde horrek kokagunearen muga edo berezko profil berriak ekartzen baldin baditu. Proposamenak erraztu eta babesteko herritarren parte-hartze mekanismoak ezartzea gomendatzen da. Kalitateko diseinu bat bilatuko da gune horietarako, arkitekturaren eta paisaiaren teknikarik berrienak erabiliko dituen, lehendik dauden hiri-ibilbideen

erabilera sustatuz, zuhaitziak handituz, txirrindularientzako eta ibiltarientzako ibilbideak antolatuz, etab. Azken hauen diseinuari erreparatuko zaio era berezian, kalitate handiagoko hiri-guneen gozamina errazteko.

- Paisaia-integrazioa irizpide komunaren artean garrantzitsua da eraikuntza-ereduen errepikapen neurrigabea saihestea, eraikinen aniztasun tipologikoa eta arkitektonikoa sustatuz eta eredu tradizionalak errespetatuz.
- Berdeguneetan eta espazio publikoetan bertako landare-espezieak erabiliko dira eta zuhaitzak landatuko dira, eta kopurua egokituko da jarriko diren lekuaren arabera eta aurreikusten diren erabilera publikoen arabera. Interes historikoko zuhaitzak, bertako espezieak, eta tamaina handiko aleak kontserbatuko dira, behar bezala justifikatzen diren kasuetan izan ezik.
- Hiri-antolamenduko tresnek, jarduketa berrietarako, hedapen-eremuak aurkitzea, Paisaiaren Kalitateko helburuekin bat, eta saiaturiko dira ez okupatzen eremu baliotsuak, arriskuen mehatxua dutenak, edo topografiarekin lotutako baldintza ahulak aurkezten dituztenak, ukatu gabe harrera-gaitasunetik eta lurraldeari nahiz sektoreari dagozkien arautegietatik eratorritako mugapenak.
- Mehelin berrien agerpena saihestuko da hiri-lurzoruaren mugan, inguruko landa-ingurunearen aurrean. Horretarako, eremu eraikigarrien zehaztapen egokia egingo da, edo albo-fatxadak definitzeko atzeraemanguneen aurreikuspena egingo da.
- Jarraitasunik gabeko bideak ere saihestuko dira, hau da, kale itxiak, edo bat-batean landa-zoruaren aurka amaitzen direnak.
- Gorde egingo dira gizartearentzat interesa duten edo esanguratsuak diren ikuspegiak edo ikus-lerroak, (mendiak, itsasertzak, zeruertza, etab.), edo hiri-ehunari berari dagozkionak (eraikin bereziak, monumentuak, zuhaitz bereziak, etab.), eta era berezian erreparatuko zaie inguruko errepideetatik edo inguruko landa-lurzorutik ikusten diren puntuak.

2. Hutsik dagoen lurzoru urbanizatua hobetzea.

- Hutsik dauden lurzatiaren itxura hobetzea sustatu behar da; horretarako, aldi batez eman daitezke lorategi edo herri-baratzak egiteko, aldezturik baldintza estetikoak eta erabili beharreko materialak ezarrita.
- Eremu horien estetika zaintzea ordenantzetara eramatea bultzatu behar da, mugatu behar dira merkataritza-iragarkien tamaina, eta lehentasuna eman behar zaie irekiei edo landare-hesiei, ikuspegi-esposizio handiko eremuetan.

3. Erabilera arautzean bermatu behar da kokalekuaren irudia nabarmentzen dela ingurune hurbileneko koroaren gainetik.

- Hiri-antolamenduko tresnek eginahala egin behar dute, lurzoruen lagapena antolatzean, hiriaren mugei lehentasuna ematen, eta hiri-ehunaren eta inguruko natura- eta landa-espazioen arteko iragazkortasuna eta trantsizioa bermatzen. Gomendagarria da hiriko lagapen-lurzoruak kokatzea, ahal bada, kontserbatuko diren eremuen ondoan. Lurzati horietan lehentasunezkoak izango dira kalitateko paisaiak sortzen dituzten erabilerak: nekazaritza tradizionalak edo naturalak, edo horiek berreskuratu daitezkeen lekuetan.
- Hirigintzako arautetan sartu behar dira hiri-paisaiarekin lotutako alderdiak: baratzak eta eraikuntzak, publizitate-errotuluak eta errepideen inguruko seinaleak, guneen sarbideetan eta hiri-inguruko eremuetan.
- Ahal den neurrian, guneetarako sarbideak lotu behar dira parke eta plazen sareekin, oinezkoen eta txirrindularien ibilbideekin, eta beste espazio publikoekin, hiriaren paisaiak behar duen jarraitasun espaziala eta soziala zainduz, eta osagai naturalen balioa azpimarratuz: ur-ibilguak, topografia, zuhaitziak, eta orobat, sarrerak bereizten dituzten arkitekturazko osagaiak, besteak beste, zubiak, gurutzeak, baselizak, jauretxeak, aduanak, bidezainen edo basozainen etxeak, etab.
- Sarbideetan, gomendatzen da berriro ezartzea zuhaitz-lerroak bideen luzeran, eta izaera eta nortasuna ematea haiei, estandarrak erabiliz jarri beharreko espezieei, tamainei eta itxurari dagokienez.

GA.2 Hiri-gune tradizionaletako eta herrixketako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea.

1. Kokalekuetako populazioari eusteko helburua duten neurri sozioekonomikoak sustatzea:
 - Etxebizitzak eskuratzeko erraztasuna ematera zuzendutako politikak sustatzea, eta orobat zabaltzea tokiko biztanleriaren giza baliabideekin lotutako lanen eskaintza; hori lotu behar da lurraldearen hobekuntzarekin eta babesarekin, esaterako nekazaritzako eta basogintzako jardurekin, aukera zabalduz paisaia mantentzeko gutxieneko erresilientzia-maila batekin: bazkalekuen mantenua, basogintzako lanak oro har, eta mendien egoeraren jarraipena.
 - Arautegien esparruan aldaketak egin behar dira, malgutasun handiagoa izateko zaharbertitzeko lanetan, bizi-kalitatea hobetzen duten alderdiei dagokienez (isolamenduak, argitasuna, teknologia berrien irisgarritasuna), beti ere ikuspenaren kalitatea gordetzen dela bermatuta (kanpoko bolumentria eta erabilitako materialak).
 - Teknologia berrien irisgarritasuna hobetzea.
 - Turismo-jarduera eta oporraldiko alokairuen merkatua arautzea.

5 JARDUERA EKONOMIKOKO EREMUAK (INDUSTRIA ETA ZERBITZUAK)

5.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Erdialdeko Araban bi errealitate elkarrekin bizi dira. Alde batetik, ohiko poligonoak, ohiko eraikinez osatuak, ohiko materialez eta itxuraz eginak, beharren arabera, eta ez estetika zainduz; kasu batzuetan, eraikin eta instalazio hondatuak ikusten dira, bertan behera uzteko bidean direnak, jarduera eten ondoren. Hirien inguruko eremuetan kokatzen dira, eta askotan bat egiten dute haiekin, etenik gabeko jarraitasunez. Beste alde batetik, jarduera ekonomikoko beste eremu batzuk ere badira, hasierako diseinuan estetika zaindu zutenak, esaterako Arabako Parke Teknologikoa, edo beste hainbat, zaharberritzeko edo hobetzeko bidean direnak, esaterako Jundizko poligonoa.

Industria eta merkataritza funtsezko jarduerak dira Erdialdeko Arabaren garapenean. Horregatik haien hazkundeak kontuan izan behar du ezarriko den lurraldearekiko begirunea, eta lagungarria izan behar du paisaia harmoniatsua zaintzen eta, behar denean, leheneratzen. Horretarako, paisaia hori osatzen duten gainerako alderdi eta osagaiekin elkarbizitzeko gutxieneko arauak bete behar dira, eta arreta bereziz zaindu behar dira jende kokalekuak eta balio handieneko eremuak.

Lehenengo erronka da hobetzea eta, ahal bada, berriro erabiltzea oraingo lurzoru industrialak. Hori aztertzerakoan, kontuan izan behar dira planifikatuta baina hutsik dauden lurzoruak. Bigarren erronka da garapen berrien eraikuntza-tipologiak antolatzea, materialei, osaerari eta bolumenen banaketari dagokienez. Hemendik aurrera, saihestuko da inpaktu handieneko industriak ezartzea paisaia aldetik hauskorrak diren eremuetan.

Beste alde batetik, hiri-inguruko eremuetan kokatzen dira berriagoak diren garapenak. Hiria/landa-gunea bitarteko eremu horiek, gehienetan, kalteberatasun bereziko eremutat hartzen dira, presio handiak jasan behar izaten dituztelako. Trantsizio-eremu horietan izaten da, hain zuzen ere, hobetu beharreko inpaktu negatiboen kontzentrazio handiena, hiri-guneen hurbileneko eremuetan daudelako, eta beraz, ikus-irisgarritasun altua edo oso altua dutelako.

Antolamendua →OI.1. Itxura hobetzeko aukera duten industrialdeen antolamendua sustatzea.

Kudeaketa →GI.1. Planifikatutako lurzoruen eta etorkizuneko garapenen kudeaketa paisaiaren kalitatea gordetzeko edo hobetzeko.

5.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

OI.1. Ikuspen aldetik hobetzeko aukera duten industrialdeen antolamendua sustatzea.

1. Industria-ehunak berritzeko politika estandarrak sustatzea, Eremu Funtzionalaren multzoarekin integratuko diren hirigintza-kalitatea eta estetika estandarrak ezarri.
 - Poligonoetarako ordenantzen berrikuntza sustatzea (industria eta abeltzaintza), ikusizko aspektuak arautzeko: hau da, bolumenak, lerrokadurak eta akaberak, bai eta erabilera baimenduak ongi egitea ere, hala nola material metak, itxiturak, hondakin eta zaborren pilaketa, etab.
 - Kaleetan zuhaitz-ilarak sartzeko; batez ere, sarbide eta kale nagusietan, eta poligonoen perimetroan, korridore berde gisa edo eraztun berde gisa.
 - Hezegune naturalak edo artifizialak babestea eta suspertzeko neurriak integratzea.
 - Ibai eta errekek egoera naturalera itzularaztea.
 - Errepide eta trenbideen kudeaketarako erakundeen arteko lankidetzak sustatzea, azpiegituren eta poligonoen arteko landare-hesiak sortzeko.

- Energia-instalazioak kokatzea industriaren eta zerbitzuen instalazio guztien estalkietan, landa-lurzorua instalazioez mukurua betetzea saihesteko.
- Nabe industrialen lurzoruen eta seinaleen berrikuntza sustatzea, estetika komun bat arautuz.
- Fatxadak berritzeko laguntzak sustatzea.

2. Hutsik dagoen lurzoru urbanizatua hobetzea.

- Hutsik dauden lurzatien itxura hobetzea, aldi baterako lagapen moduan emanez lorategiak edo herri-baratzak sortzeko, aldezturik ezarrita baldintza estetikoak eta erabili beharreko materialak.
- Eremu horien estetika zaintzea ordenantzetara eraman behar da, mugatu behar dira merkataritza-iragarkien tamaina, eta lehentasuna eman behar zaie gune irekiei edo landare-hesiei, ikuspegi-esposizio handiko eremuetan.

GI.1. Planifikatutako lurzoruen eta etorkizuneko garapenaren kudeaketa paisaiaren kalitatea gordetzeko edo hobetzeko.

1. Lurzoruaren sailkapena arautegi desberdinen arabera egitea sustatu behar da, haien paisaia-balioen arabera, onartutako tipologiak zehaztuz (bolumenak, alturak, materialak, diseinua) balio horiekin lotuak.
 - Alde batera utzi edo minimizatu behar dira paisaia-balio handiko enklabeen gaineko kalteak, hiri-gune tradizionalak, herrixkak edo ondarezko elementuak ukitzen badituzte.
2. Industrialde berririk behar izanez gero, paisaia, ingurumen edo ekoizpen aldetik balio eskasa duten puntuetan kokatuko dira, ikuspegi-esposizio handiko puntuak saihestuz eta, nolatan ere, inguruarekin integratzeko neurriak ezarri eta eraikitako bolumenen banaketa sustatuz.
 - Ikus-irisgarritasun baxuko kokapena aukeratzea.
 - Industrialdeen plangintzak eta garapenak aintzat hartuko dituzte paisaia-unitatean edo haren inguruetan identifikatutako balioak (naturalak, kulturalak).
 - Plangintzak arreta berezia jarri beharko du balio handiko elementuen integrazioan, besteak beste, bertako landaredia, ibai-bazterrak, paisaia adierazgarriak edo abeltzaintzakoak. Inguru hurbileneko espazioekiko trantsizio-tarteak sortzea sustatuko da, eta haien barruan landaredia jartzea. Hori guztia ikus-inpaktua minimizatzeko, tokiko konektagarritasun ekologikoa sustatzeko eta erregulaziorako zerbitzu ekosistemikoak integratzeko haien hirigintza-diseinuan.
3. Haiek diseinatzean, arreta bereziz begiratuko da industrialdeen eta landa-lurzoruen arteko muga. Horren helburua da saihestea trantsizioa gertatzea industria-erabilerako lurzatien atzeko aldean, integratzeko neurri egokirik gabe.
 - Gomendagarria da industrialdearen eta inguruaren arteko muga itxuratzeko errepideak, oinezkoen ibilbideak edo gune libreak erabiltzea. Gainera, ikuspegi-esposizio handiko eremuetan edo balio handiko eremuen hurbilekoetan, dagozkien ordenantzen bidez arautu beharko dira lurzati eraikigarrien atzeko aldean tratamendurako baldintzak.
 - Landare-pantailak erabiliko dira, bertako espeziez osatuak, inpaktu edo tamaina handiko elementuak ezkatatzeko, osorik edo zati bat. Itxiturak egiteko bertako zuhaitz- eta zuhaixka-espezieak erabiliko dira, tamaina desberdinetakoak, ilarako landaketarik jarri gabe, eta tamaina handiko zuhaitzak eta hostotsuenak jarri ikus-inpaktu handieneko eremuetan.

Hirigintzari buruz

- Berdeguneak betiere bertako espeziez osatuko dira, eta lurzoruaren konposizioari erreparatuta jarriko dira, eginkizun ekologikoak egokien betetzen dituzten eremuak bilatuz, lehendik zeuden landare-multzak edo zuhaitzak kontserbatzeko, halakorik baldin bazegoen. Gainera, haien arteko konektagarritasuna sustatuko da, lurzatien ertzetan eta barnean jarraitasuna emanez, eta jarduketara gauzatuko den lurzatiaren dauden ale adierazgarrienak zainduz, ahal den neurrian.

- Bideen sarea lekuaren ezaugarrien arabera egokituko da, topografiaren arabera, ahal den gutxiena nabarmendu dadin eta paisaia integratu dadin. Poligonoaren inguruko eremuetan dagoen bide-sarea eta bide berrien arteko jarraitasuna bermatuko da.
- Bideen eta hirigintza-osagaien diseinua eta materialak homogeneousak izango dira, ahal izanez gero erabiliz lurzoru iragazkorrak, eta lorategi-guneak erarik egokienean banatuz.
- Kamioiak eta tamaina handiko ibilgailuak aparkatzeak eragiten dituen ikus-oztopoak saihesteko, aparkatzeko leku egokiak jarriko dira poligonoaren barneko aldean edo eraikinen fatxaden ondoan. Horretarako espazioak edo eremuak prestatzen badira, diseinua egiteko irizpideetan aintzat hartuko dira ikus-inpaktua, bero-uhartearen efektua eta zatiketa ekologikoa minimizatuko dituzten neurriak.
- Industrialdeen argiztapena haien behar funtzionalen arabera izango da, baina argi-erakarren punturik sortu gabe kanpotik ikusten dutenentzat. Helburu hori betetzeko, argiztapenaren intentsitateari, koloreari eta norantzari erreparatuko zaie, eta orobat inguruarekin ongi egokitzen diren iluminariak erabiltzeari.

Eraikinei buruz

- Eremu eraikigarrien diseinua, orientazioa eta forma zehazteko, kontuan hartuko dira, batez ere, biziguneetatik eta errepideetatik dauden ikuspegiak, eta aztertuko dira formak eta lerroak, egokitu ahal izateko bolumenak, alturak, kaleen trazatua eta nabeen kokapen erlatiboa.
- Ahal bada, nabeen bolumetria orokorrak nolabaiteko homogeneousotasuna aurkeztuko du sartzeko kalearen, alturen eta akaberen aldean.
- Distira eragin dezaketen azalera handiak saihestuko dira, eta horretarako gomendagarria da kolore-paleta desberdinak prestatzea poligono bakoitzarentzat, ingurunearekiko kontrastea leunduko duten materialak eta koloreak aukeratu ahal izateko, eta integrazio bisual hobea lortzeko.
- Ahal den guztietan, ez dira jarriko itxiturak lurzatiaren mugetan, eta horien ordean erabiliko dira ur-ibilguak, landaredia eta naturalizatutako lubetak. Neurri hori derrigorrezkoa izango da, batez ere, ertzeko eremuetan, errepide edo sarbideekin burutu ez direnean, eta horregatik, ertzean dauden lurzatiak gaindimentsionatuko dira, betebeharrak horri erantzuna eman ahal izateko.
- Publizitate-euskarriak eta errotuluak, panelak eta seinaleak arautzeko irizpideak jarriko dira, haien kokapena, tamaina eta forma zehaztuz, ziurtatu ahal izateko nolabaiteko homogeneousotasuna, eta multzoaren kalitatea bermatzeko.

6 GARRAIO-AZPIEGITURAK

6.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Paisaiaren Kalitateko Helburu zuzentzailea da komunikazio-sarea paisaian integratzea, eraginkorra izatea, orain dagoena hobetuko duena eta egiazko beharrian arabera handituko dena, kasu horretan aintzat hartuz Katalogo honetan jasotzen diren gidalerroak. Sare guztiaren hobekuntza bera Paisaiaren Kalitateko Helburua izango litzateke, baina gehiago zuzendu behar da identifikatutako zatietara, gizarte-larritasun handikoak direlako (ikus-irigarritasuna eta eragindako inpaktua), eta berreskuratzeko aukera dutelako.

Azpmarratu behar da etorkizuneko garapenak jasotzen dutela, araututako ingurumen-ebaluazioaren barnean, paisaia-integrazioa. Hala ere, Katalogoaren ikuspegitik, ekintza osagarriak gomendatu daitezke, paisaia-baliabidearentzat onuragarriak izango direlako.

Azkenik, argitu behar da azpiegitura guztiek ez dutela inpaktu negatiborik eragiten paisaiaren gainean. Aitzitik ere, mendialdeko haranak sigi-saga zeharkatzen dituzten errepideak, zenbait biadukto eta harriz egindako babesguneak kontserbatu eta ikusteko moduan jarri behar dira, ondare kulturalaren osagai gisa.

Antolamendua →OT.1. *Garraio-azpiegituren zatien paisaia-hobekuntza.*

Kudeaketa →GT.1. *Garraio-azpiegituren etorkizuneko plangintzaren kudeaketa, haien paisaia-integrazio eraginkorra lortzeko.*

6.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

OT.1. *Garraio-azpiegituren zatien paisaia-hobekuntza.*

1. Zuhaitzak sartzeari bideetan, indarrean den legediaren arabera, landare-pantailaren funtzioa bete dezaten, hobetzeko proposatutako puntuak zeharkatzen dituztenean, eta landaketak egiteko espazio aski ez dutenean (industrialdeak, hiri-ertzeak sarbideak).
2. Errepideen inguruko publizitate-errotuluen erabilera, akabera eta diseinuari buruzko gomendioak ematea, ikus-eremuaren arabera egokitzeko eta mugatzeko Paisaia Interes Bereziko Eremuetan kokatzen direnak, horiek zeharkatzen dituztenak edo hara hurbiltzen direnak.

GT.1. *Garraio-azpiegituren etorkizuneko plangintzaren kudeaketa, haien paisaia-integrazio eraginkorra lortzeko.*

1. Paisaiari pisu handiagoa ematea etorkizuneko garapenak kokatzeko garaian, eta paisaia-integrazioa era eraginkorragoan eramatea.
 - Baztertu behar dira, edo minimizatu, paisaia aldetik balio handikoak diren guneen gaineko eraginak, hiri-gune tradizionalei, herrixkei edo ondare-osagaiei eragiten dietenean.
 - Integrazioarako neurri eraginkorrak ezartzea kudeaketako Paisaia Interes Bereziko Eremuei eragiten dietenean.

7 ENERGIA- ETA TELEKOMUNIKAZIO-AZPIEGITURAK

7.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Oro har, instalazio hauek bolumen handietan gauzatzen dira, ikuspegian eragiten duten alturekin, eta paisaia-ingurunearekin nabarmen kontrajartzen diren tipologiekin, eta beraz, pertzepzioan nagusitzen dira. Haize-parkeei eta eguzki-parkeei buruz ari garenean, aipatzen ari gara haize-sorgailu eta plaka fotoboltaiko horiek inguru oso zabal batetik antzematen diren kasuak, alegia, aipamen horretatik kanpo geratzen dira isolatuta dauden haize-sorgailuak edo plaka fotoboltaikoak. Barnean sartzen dira, ordea, energia-garraiorako azpiegiturak, esaterako linea elektrikoak, gasbideak edo telekomunikaziorako antenak.

Energiaren inguruko jarduera Araba Erdialdeko garapenaren etorkizuneko zutabeetako bat da. Energia berriztagarriek eta ekonomiaren elektrifikazioak hazkunde-potentzial handiko merkatua eragiten dute euskal enpresa askorentzat, deskarbonizazioa areagotzen ari den honetan. Horregatik, haien hazkundearen helburua izan behar du zabalduko diren lurraldea errespetatzea. Horrekin batera, paisaia harmoniatsua mantentzeko eta suspertzeko lagungarria izan behar du, paisaia hori osatzen duten gainerako osagaiekiko elkarbizitza bermatzeko gutxieneko arauak errespetatuz, eta arreta bereziz begiratzuz jende kokalekuen sistemari eta inguru baliotsuenei. Hala ere, oraingo garapenek arauzko ingurumen-ebaluazioa jasan badute ere, tartean dela paisaia, ez da multzoko ebaluaziorik egin, ondorio sinergikoei erreparatuz. Hori bereziki nabarmena da ebakuazio energetikoko harien kasuan, eta horientzako multzoko Plan bat eratu daiteke, inpaktu gutxiago eragingo duten alternatiba berriak baloratzuz. Azkenik, orain sortzen dituzten inpaktuak minimizatzea, edo are ezabatzea ere, berez, Paisaiaren Kalitateko Helburua izango litzateke, baina zuzendu behar da gizarte-larritasunagatik identifikatu diren ekintzetara (ikus-irisgarritasuna eta sortutako inpaktua) eta berreskuratzeko potentzialitatea dutenetara.

Antolamendua→ OET.1. Ikusizko inpaktu altuko azpiegitura handiak birplanteatzea.

Kudeaketa→GET.1. *Energia- eta telekomunikazio-azpiegituren* etorkizuneko plangintzaren kudeaketa, haien paisaia-integrazio eraginkorrera zuzendua.

7.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

OET.1. Ikusizko inpaktu altuko azpiegitura handiak birplanteatzea.

1. Linea eletriakoak lurperatzeko aukeraren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertzea, PKH II. kartografian seinalatutako kontserbaziorako PIBEei edo herriei modu nabarmenean eragiten dieten zatietan.
 - Paisaiaren ginean inpaktu negatibo larriak, edo inpaktu sozialak edo ingurumenari dagozkionak, eragiten dituzten Tentsio Oso Altuko linea zatiak lurperatzea, PIBE gisa aitortutako gunek bereziak zeharkatzen dituztenean.
2. PKH II. kartografian seinalatuta dauden eta ikusizko inpaktu larriak eragiten dituzten haize-sorgailu eta antenak birplanteatzeko aukeraren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzea.
3. Haize- eta eguzki-parkeetan lurzorua nekazaritzarako eta abeltzaintzarako erabiltzea sustatzea eta exijitzea.
4. Bertan behera utzitako azpiegiturak, edo erabiltzen ez direnak, kentzea.
5. Linea elektrikoek kaleak paisaian integratzea, horretarako zabalduz suebaki-eremuetara. Era horretan, erdiko eremua landaredirik gabea izango da, eta basoa ukitu arteko tartea trantsizio-eremua izango da.

Tentsio Altuko Aireko Linea Elektrikoen Arautegian oinarrituta, konpainia elektrikoak hasi dira zuhaitzik gabeko pasabideak irekitzen, zabalera iraunkorrekoak, modu generikoan “kaleak” deitzen direnak, zuhaitziak zeharkatzen dituztelako. Derrigor utzi beharra dago segurtasun tarte bat energia-eroaleen eta zuhaitzen

artean, baina ez da nahitaez betetzen oihan-masa zeharkatzen duen zati osoan, 30-60 metroko zabalera iraunkorra duenean, 400 kV-ko linea baten zortasun-eremuan.

- Linea elektrikoen kaleak / suebaki-eremuak, eta Suebaki-eremuak / Basoa kontaktu-eremuek irregularrak izan behar dute, lerro zuzenak saihestuz eta ertzetan sigi-saga eginez, harritzaren formak imitatuz.
 - Suebaki-eremuak kokatzeko aprobetxatu behar dira berezko gune soila agertzen duten eremuak, edo artifizialak, aukera izateko erregaiaren etendura bertikala eta horizontala egiteko.
 - Kaleei dagokienez, ahal den gutxien erabiliko dira linea berrien eraikuntzan, eta haien dimentsioak kudeaketaren ardura duten erakundeekin adostu behar dira.
 - Gomendagarria da erabiltzea “suebaki berdeak”, gune ekologikoak horretarako aukera ematen badu. Sistema hori zenbait landare mota batera jarriz egiten da, eta ingurumen aldetik onuragarria da. Helburua da suteak eragozteko, mugatzea eta erabat itzaltzea lortzea, sua eragozteko bertako landaredia sustatuko duten teknikak erabiliz.
 - Alboetako eremuetan eta suebaki-eremuen mugetan gomendatzen da eskuz egitea, bioxehetze-sistemez hornitutako esku-motosega erabiliz. Oro har, suebakietan eta suebaki-eremuetan sustatuko dira zurezko landaredia kontrolatzeko esperientziak, abeltzaintza estentsiboa erabiliz.
6. Antena igorleek eta haririk gabeko seinaleen errepikapeneko antenek ikus-eremuetan, hondoetan eta leku adierazgarrietan eragiten duten inpaktua minimizatzea. Horretarako, ahal bada, horien konpaktazioa bultzatuko da, edo gailurreko lerroetatik kanpo kokatzea. Ziurtatu behar da, orobat, antenen eta kontrol-erakinen tratamendu estetikoa, ikus-hondoetan hobeto integratu daitezen.

GET.1. *Energia- eta telekomunikazio-azpiegituren etorkizuneko plangintzaren kudeaketa, haien integrazioa hobetzeko.*

1. Paisaiari pisu handiagoa ematea alternatiben analisian, etorkizuneko garapenak kokatzeko eta paisaia-integrazioa era eraginkorragoan jasotzeko garaian. Azterlanen irismena zabaltzea, kontuan hartuta harrera-gaitasun globala eta instalazioen arteko sinergiak.
- Ekintzarik eraginkorrena da paisaia integratzea hasieratik, hartara planteatzeko paisaia-kalitate gutxieneko eremuetan, edo lurraldearen paisaia-balioen eta beste baliabide batzuen galera (ondarea, ekoizpen-lurzoruak...) minimizatzen duten alternatiben bidez.
 - Baztertu behar dira, edo minimizatu, paisaia aldetik balio handikoak diren guneen gaineko eraginak, hiri-gune tradizionalei eta herrixkei edo ondare-osagaiei eragiten dietenean. Batez ere amildegi edo muinoei dagokienez.
 - Baztertu behar da babeserako PIBE batean kokatzea, eta orobat ondoko eremu batean.
 - Integraziorako neurri eraginkorrak prestatu behar dira, kudeaketako PIBE bati eragiten diotenean.
 - Ikus-irisgarritasun baxuko kokapena aukeratzea.
 - Ikusgarritasun handieneko puntuak saihestea (ikuspegi-esposizio handiko guneak) eta, nolanahi ere, ingurunearekin integratzeko neurriak ezartzea.
 - Industria eta zerbitzueterako instalazio guztien estalkietan energia-instalazioak ezartzeko plana, landa-eremua instalazioz mukuratu ez betetzeko.

8 ERAUZKETA-JARDUERAK, ZABORTEGIAK ETA HONDAKINAK TRATATZEKO INSTALAZIOAK

8.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Erauzketa-eremuak agerian irekitako meategiak dira, lur-azalean gauzatzen direnak. Erauzketa egiteko eremuak agerian uzten dituzte, eta haien forma erregularrekin ikusizko kontraste handia sortzen dute, azalean ageri diren meategien eta inguruko paisaia naturalaren artean. Zabortegeiak (eta hondakindegia) berrerabiltzen ez diren hondarrak eta hondakinak isurtzen direneko guneak dira. Hauexek dira paisaiaren degradaziorik handiena eragiten duten elementuetakoak, maila desberdinetakoak noski, eta inpaktu larriak eragiten dituzte, ikusizkoak nahiz sistemikoak, beren eskala eta intentsitatearen arabera.

Harrobien paisaia leheneratzea gizarteak biziki eskatzen duen gauza da, eta horregatik eskatu behar da egiazko paisaia-integrazioa, lizentzia berriak emateko proiektuetan. Era berean, berrius daitezke lehen emandako esleipenak, orain eskura dagoen informazioaren arabera, horien etorkizuneko integrazioari buruzko egiazko zalantzak baldin badaude. Horientzat guztientzat, kontrol handiagoa ezarri behar da meategien kopurua eta egoera eta instalazioen kokapenaren gainean, eta behar den zaintza ezarri behar da, leheneratze-planak betetzen direla, egokiak direla eta eraginkorrak direla bermatzeko. Berebiziko garrantzia duen gauza da hori, ezinbesteko oreka aurkituko bada jarduera ekonomiko horren, ingurumenaren (oro har) eta paisaiaren (zehazki) artean. Beste alde batetik, lanean ari diren ustiategi batzuek inpaktu oso larria dute paisaian, baina lizentzia eta leheneratze-plana onartua dute. Horrek, noski, ez du emaitza onik bermatzen, eta horien kasuan, eta aspaldiko meategi irekien kasurako, oraindik ere paisaiaren gainean kalte larria eragiten baitute, helburu desiragarria da egiazko integrazioa.

Azpimarratu behar da, zero irekian dauden meategi zaharren paisaia, edo hondakindegia zaharren paisaia leheneratzea helburu desiragarria bada ere, zenbait kasutan zailtasun tekniko handia agertzen dutela, eta eragiten duten gastua ere oso altua izaten dela, eta batzuetan, horiek leheneratzea guztiz ezinezkoa dela.

Horien zailtasun handia eta eragiten duten kostua direla-eta, ikusizko hobekuntzaren helburuaren barruan, gomendagarria da txosten bat egitea hobekuntza- edo leheneratze-lanen bideragarritasun tekniko edo sozioekonomikoa zehazteko (ratioa kostua/gizarte-onura). Paisaia leheneratzea aurrera eramatea ezinezkoa dela ezartzen den eremu degradatuetan, paisaia berri bat sortzea planteatu daiteke, erabilera-aldaketa baten bidez.

Antolamendua→OEX.1. Meategi, zabortege eta beste eremu degradatuen paisaia-integrazioa sustatzea.

Kudeaketa→GEX.1. Paisaiari pisu handiagoa ematea ingurumen-baimenaren prozesu arautuan.

8.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

OEX.1. Meategi, zabortege eta beste eremu degradatuen paisaia-integrazioa sustatzea.

1. Onartutako leheneratze-planen kasuan, baliabide gehiago jarri behar da harrobiaren paisaia-integrazio egokia zaintzeko, kontrolatzeko, egiaztatzeko eta, behar bada, berrikusteko; berdin egin behar da sarbideen eta makinarien joan-etorrien kasuan.
2. Leheneratze-plana onartua duten harrobien integrazioarako planak egitea sustatu behar da, haien gizarte-eragina oso larria denean. Kasu horietan, gomendagarria da proiektu horiek jasotzea leheneratze geomorfologikoa, ahal den guztietan. Leheneratze morfologikoa ekonomikoki edo teknikoki ezinezkoa denean, paisaia berriak sortzea proposatzen da, kokatzen diren inguruarekin bat eginez.

3. Lanean ari diren harrobien leheneratze-planetan ezarritako paisaia-integrazio egokiaren kontrol handiagoa eramateko neurriak ezartzea. Ahal den neurrian, landaredia leheneratzeko neurrien jarraipen eraginkorra eta egiazkoa egiteko baliabideak jarriko dira (administrazio eskudunaren bidez).
4. Sarbideen paisaia-integrazioa. Sarbideetan landaketak egitea gomendatzen da, eta orobat ezpondak egonkortzeko bioinjeniaritzazko neurriak ezartzea.

GEX.1.

Paisaiari pisu handiagoa ematea ingurumen-baimenaren prozesu arautuan.

1. Ekintzarik eraginkorrena da paisaia integratzea hasieratik, hartara planteatzeko paisaia-kalitate gutxieneko eremuetan, edo lurraldearen paisaia-balioen eta beste baliabide batzuen galera (ondarea, ekoizpen-lurzorua...) minimizatzen duten alternatiben bidez.
2. Baztertu behar da babeserako PIBE batean edo ondoko eremu batean kokatzea.
3. Ikus-irisgarritasun baxuko kokapena aukeratzea.
4. Ikusgarritasun handieneko puntuak saihestea (ikuspegi-esposizio handiko gunek) eta, nolanahi ere, ingurunearekin integratzeko neurriak ezartzea.
5. Gomendagarria da eskatzea, prozeduraren barnean, paisaia leheneratzeko berme bat, bertan jasoko duena jarduerak ukitzen dituen ikus-eremuak barne hartzen dituen paisaia-unitate guztien gaineko eraginaren azterketa. Halaber, hobekuntza-neurri gisa, leheneratze geomorfologikoa eskatzea. Leheneratze geomorfologikoa orain dela gutxi sortutako diziplina da, zientifikoa eta teknikoa, eta haren helburua da diseinatzea eta berregitea lurzorua forma egonkorra eta "naturalak", lur-mugimenduek eraldatutako espazioak birgaitzeko eta suspertzeko. Berreraikuntza horiek CAD plataformen gaineko diseinu aditueta oinarritzen dira, eta horien bidez erreplikatzeko dituzte geoformak eta paisaiak, giza jarduerak eraldatu aurretik zeuden antzera. Baina ez morfologiari dagokionez bakarrik, baizik eta, batez ere, haien dinamikari dagokionez ere (ikus www.restauraciongeomorfologica.es).

9 NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINITZAKO PAISAIAK

9.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Nekazaritzak eta mendia abeltzaintzarako erabiltzeak eragindako eraldaketei lotutako paisaia oso hedatua da Araba Erdialdean, hedadura osoaren laurdena hartzen baitu, lautada eta haran zabaletan kontzentratua. Eremu Funtzionaleko nekazaritza-paisaiaren ezaugarria lautada eta haran-hondoetako laborantzak dira, labore-lurrak, gehienak erregimen intentsiboan kudeatzen direnak. Horrek homogeneousun bat sortzen du, bestelako aprobetxamendu batzuen aldean (mahastiak, fruta-arbolak...). Sistema hori dator joan den mendeko 50eko hamarkadan antolatutako lurzatiei kontzentrazioetik, Lautadako labore gehienak aspertsiozko urezta-lurrak bihurtu baitziren ondoren, mosaikoa osatuz urteko laboreen (zekalea, patata eta erremolatxa) eta labore iraunkorren (bazka-laboreak) artean.

Haran askotan, eta mendi-magalen beheko aldean, urteko laborez, soroz eta bazkalekuz osatutako mosaiko baten moduan agertzen da paisaia, eta landazabal atlantikoa deitzen da.

Beste alde batetik, erabat beharrezkoa da geldiaraztea hirien hedapena iristea inguru hurbilean duten landa-eremuetara, eta batez ere lur emankorrak hartzen dituenen, eta hobetzea, ahal den guztian, hirien inguruko muga horien irudia. Beharrezkoa da etorkizunean ez konprometitzea jende kokalekuen populazio-sistemaren jasangarritasuna, eta galarazi behar da etxebizitza eta etxola isolatuen hedapena eta ugaritzea, eskualdeko udalerrietako lurzoru urbanizaezinean.

Helburua da jarduera horiek kontserbatzea paisaiaren zati “bizi” gisa. Sistema estentsiboak kontserbatzeak landa-ingurunean ekonomia dibertsifikatu bati eusteko aukera emango du. Begien bistakoa da klimak nekazaritzaren arloan duen garrantzia, eta premiazkoak dira aldaketa globalera egokitzeko neurriak, nekazaritza kaltetua izango delako ur geza eskuratzeko aukerari eta laborantza-espezieei eragingo dioten agertokiak. Aldaketa globalak eragindako prozesu horien arabera egokitu beharrek nekazaritzaren beraren iraupena jartzen du mahai gainean. Nekazaritza jasangarria paisaiaren parte da, eta CO₂-aren hustubide garrantzitsua da. Elikagai seguru eta kalitatekoen ekoizpen jasangarria da lortu beharreko helburua, eta ahalegin horretan nekazariak inplikatu dira, baina administrazioa ere bai. Administrazioaren zeharkako bultzadak ardazten ditu politika zientifiko-teknologikoak, hidraulikoak, energetikoak, nekazaritzakoak eta ingurumenekoak, eta horiek gauzatu beharko dira ureztapen intentsiboa kontserbatu eta hobetuko duen lurralde-plangintza batean. Informazio gehiago eta hobea behar da klimaren baldintza berrien aurrean erresistentzia handiagoa duten laboreei buruz, hobeto ezagutu behar dira labore bakoitzaren arabera eta aldaketa-prozesuen arabera egokitutako nekazaritza-jardunbideak, kostuen murrizketa, ekoizpen ekologikoaren teknikak, biomasaren ekoizpena, agroerregaien erabilera –etanol, agrodiesel–, ongarri berdeak, monolaborantzak saihestea ahal den gehien, mugak eta ertzak kontserbatzea eta hobetzea, etab. (Sánchez *et al*, 2019a). Hala ere, haren dinamika antropikoen ondorioz, haren kontserbazioa ezinezkoa izango da jarduera primario estentsiboak irauten ez badu. Hori gabe, pixkanaka naturalizatuko dira errentagarritasun txikieneko eremuak, edo jarduera degradatzaile horietan ezarriko dira.

Nekazaritzako eta abeltzaintzako balio handiko paisaia tradizionalak babesteko proposamen bat ez daiteke modu generikoan formulatu. Baratzak, lehorreko laborantza eta landaredia mediterraneoez osatutako mosaikoak, landazabal atlantikoa..., paisaiaren aniztasuna eta kalitatea areagotzeko osagai egokiak dira, baina beharrezkoa izango litzateke kasuz kasu aztertzea. Gainera, babesarekin batera, horiei eustea sustatuko luketen politikak zehaztu beharko lirateke. Nolanahi ere, argitu behar da zenbait gune zehatz bai identifikatu direla, eta horietan bai egin dela kontserbatzeko eginahala, PIBE gisa sailkatu baitira.

Hala ere, edozein helbururen gainetik dago haien kontserbazioa ekoizpen-gune gisa, baina hori ez dago kontrajarria kalitateko nekazaritza-paisaia kontserbatzearekin. Ekoizpen-gune hori inpaktu negatiborik gabea izan

daiteke, usadiozko egitura eta osagaiak mantendu eta sustatzen dituen. Zati handi batek dagoeneko eraldaketa handia jasan du, lurzati-berrantolamenduaren eta nekazaritzaren intentsifikazioaren ondorioz. Horiek ekoizpen eta jasangarritasun handiagoko eredueta eramango badira, lurraldea errespetatuz egin beharko da. Elkarlana beharrezkoa izango da, paisaia harmoniatsua mantentzeko eta, behar denean, leheneratzeko lanean. Paisaia hori eratzen duten osagai guztien arteko elkarbizitzarako gutxieneko arauak aintzat hartu beharko dira, era berezian zainduz jende kokalekuen sistema eta eremurik baliotsuenak. Horretarako, leku bakoitzaren izaeraren eta eskalaren arabera arautu beharko da, eta nekazaritza-eremuen eta bizilekuen arteko harremanak hobetu. Hiri-guneekiko distantzia gorde behar da, haien irudia ez eraldatzeko, baina bi aldeek beren beharrian funtzionalak eta ingurumenekoak ere badituzte, eta horiei ere erantzuna eman behar zaie, eremu bakoitzean (landa edo hiria) erreserbatuz behar dituen eraikinak egiteko eremuak, esaterako, abeltzaintza-parkeak, biltegiak eta nekazaritza-makineria gordetzeko eremuak, betiere gutxieneko kalitateari eutsiz, guztien arteko elkarbizitza bermatzeko.

Horregatik, PKH gehienak planteatzen dira, funtsean, paisaia etorkizuneko planifikazio- eta ebaluazio-prozesuetan integratzeko kudeaketari begira.

Babesa→ PAG.1 *Nekazaritzako eta abeltzaintzako balio handiko paisaia* tradizionalen osagaiak babestea.

Antolamendua→ OAG.1. Nekazaritza-paisaia tradizionala hobetzea.

Antolamendua→ OAG.2. Inpaktu negatibo potentziala duten nekazaritzako azpiegituren ikuspena hobetzea.

Kudeaketa→ GAG.1. Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak laborantzaren teknologia berrien arabera egokitze eta errentagarritasuna hobetzeko ekintzak paisaiaren arabera egokitzea.

Kudeaketa→ GAG.2. Paisaia-balio altuko *nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaien* kontserbazioa sustatzea.

Kudeaketa→ GAG.3. Paisaiaren inguruko irizpideak sartzea nabe isolatuak eta kanpo-eraikinak eraikitze lizentzien kudeaketan.

Kudeaketa→ GAG.4. Abeltzaintza estentsiboa eta beste hainbat erabilera kontserbatzea nekazaritzako paisaiaren zati bizia direlako eta lurraldea kontrolatzeko modua direlako, zerbitzu ekosistemikoak zaintzeko eta sute-arriskuak murrizteko.

9.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

PAG.1. *Nekazaritzako eta abeltzaintzako balio handiko paisaia* tradizionalaren osagaiak babestea

1. Udaleko planeamendu orokorrean paisaia-balio handiko nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia tradizionalak kontserba daitezen sustatzea. Horrek eskatzen du udalerrietan ebaluatzea baratzeak, lehorreko laborantzez eta landaredia mediterraneoz osatutako mosaikoak, landazabal atlantikoa, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaiak, balio altukoak, produktiboak eta zalantzarik gabeko funtzio ekosistemikoak dituztenak.
2. Ubide-sarea eta ureztatzeko azpiegitura tradizionalak kontserbatzea eta haien erabilera dibertsifikatzea.
3. Interes berezikoak edo paisaia aldetik adierazgarriak diren eraikin etnografikoen kontserbazioa sustatzea eta erabilera berriak bilatzea.

OAG.1 *Nekazaritza-paisaia* tradizionala hobetzea

1. Kudeaketa berezikotzat sailkatutako PIBEetan sustatzea eraldatutako paisaiaren lehengoratzeari: heskaiak, bide-ertzak eta bestelako egiturak.

Hondatuta dauden “aisialdiko baratzeak” lehengoratzeari: eraikuntza kaxkarrak kentzeko edo zaharberritzeko laguntzak, ureztatzeko sistemak integratzea, bai eta ongariak eta beste metatzeko eremuak ere.

OAG.2 Inpaktu negatibo potentziala duten nekazaritzako azpiegituren ikuspena hobetzea

1. PKH II. kartografian seinalatutako sarbideetan eta enklabeetan kokatuak dauden nabe isolatuen eta nekazaritzarako ez diren eraikinen ikuspena hobetzeko laguntzak sustatzea.
2. Ikuspen hauskorrekoak diren eta osagai kaltegarriak dituzten hiri-inguruko eremuen antolaketa sustatzea, paisaiaren gaineko inpaktuak minimizatzeko eta garrantzia emateko gune tradizionalari:
 - Nekazaritzako eta abeltzaintzako nabeak zaharberritzea eta paisaian integratzea.
 - Katalogoaren ebaluazio-eskalak horien kokapena zenbait sarbideetan edo ikus-irrisgarritasun handiko enklabeetan zehazteko aukera ematen badu ere, eta orobat antzemateko sortzen duten inpaktuaren tamaina eta intentsitatea, ez da nahikoa azpiegituren multzoaren ikuspenaren hobekuntza ebaluatzeko, izan ere, beharrezkoa litzateke kasuz kasu aztertzea.

GAG.1 Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak laborantzaren teknologia berrien arabera egokitzeko eta errentagarritasuna hobetzeko ekintzak paisaiaren arabera egokitzea.

1. Sustatu behar da paisaia-irizpideak sartzea lurzatiak biltzeko ekimen berrietan, onartu daitezen. Besteak beste, diseinuan hauek sartzea proposatzen da:
 - Tamaina handieneko lurzatiak zehaztea, erregularizazioa saihestea, eta mugak nahitaez landarez mantentzea.
 - Diseinuan faunaren pasabideak eranstea, horretarako aprobetxatuz ureztapenen soberakinen eta itzulerako ubideak, lurzatiaren ertzak eta berezko landaredia duten guneak.
 - Komunikaziorako bideak diseinatzea herrien eta ibaiertzen artean.
 - Kontzentrazioan eraldatu gabe utzi beharreko espazioaren gutxieneko portzentajea handitzea, eta espazio hori azpiegiturarako esleitzea galaraztea.
 - Funtzio anitzeko ertzak ezartzea, biodibertsitatea areagotzeko, mekanizazioa galarazi gabe.
2. Exijitu behar da gaurko lurraldearen balioen gaineko inpaktuaren ebaluazioa, paisaiari eta ingurumenari dagokiona, babesteko arauen baten pean egon nahiz ez egon.
3. Onura fiskalak sustatu behar dira, edo neurriak ezartzeko laguntza gehiago eman, paisaia hobetzeko, biodibertsitatea areagotzeko edo klima-aldaketara egokitzeko.
4. Nekazaritza-paisaia tradizionalaren degradazioa saihestea. Galarazi behar da urbanizazio sakabanatuaren inguruan, edo aisialdiko baratze-guneen inguruan, eraikin ugari agertzea (etxolak, igerilekuak, txabolak, etxe modernoak), edo haien itxura eta banaketa arautu eta kontrolatu behar dira.
 - Aisialdiko baratzeen "oinarrizko" legedia ezarri behar da, baratzeen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko baldintzetan haien paisaia-integrazioa eta ingurumen-jasangarritasuna jasotzeko, eta orobat horiek kontrolatzeko eta gauzatzeko neurriak.
 - Dagoeneko horiek arautzeko ordenantzak dituzten udalei laguntzeko mekanismoak ezartzea, eta etorkizunean arautuko dutenentzat ere bai.
5. Nekazaritzako eremu baztertuak naturalizatzeko prozesuak areagotzea.
6. Bultzatu behar da laborantzen kontserbaziorako nekazaritzaren ingurumen-arlotik ematen diren laguntzak lortzeko baldintza izatea jardunbide tradizionalak eta jasangarriak mantentzea, eta bioaniztasuna areagotzeko jardunbideak ezartzea.
 - Nekazaritza ekologikoari laguntzea. Azken aldian alternatiba horrek indar handia hartu du, eta dagoeneko ez da jarduera osagarri edo bigarren mailako bat, eta indar handiz dator goraka. Beraz, gomendagarria da jarduera hori sustatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezartzea, izan ere, oro har, jarduera horiek gauzatzen dira paisaiarekiko begirunez jokatzeko duten teknikak erabiliz. Gainera, aukera ematen dute nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaiak kontserbatzeko, proiektzio hobea dutelako eta, ondorioz, lehiakorragoak direlako merkatuetan.

- NPBk eskaintzen dituen pizgarriak sustatzea, biodibertsitatea hobetzeari edo mantentzeari dagokienez, eta horiekin batera, flora, fauna eta habitata babestearekin bateragarriak diren nekazaritzako zenbait jardura betetzeagatik.
 - Nekazaritzaren ingurumenarekin lotutako laguntzak handitzea sustatu behar da, lurzatietan biodibertsitate handiagoa lortzearekin lotuta.
7. Bertako arrazako abere-taldeak modu estentsiboan mantentzea sustatu behar da, abeltzain txikientzako laguntzak emanez edo, helburu horretara iristen ez bada, izaera “publikoko” abere-taldeak sartuz.

GAG.2 Balio altuko nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaien kontserbazioa sustatzea

1. Lurzatien mosaikoa kontserbatzen saiatzea, batez ere heskaien bidez edo itxitura tradizionalen bidez zedarritua badago: arloko arautegian aldaketa bat sustatzea, erregulazio bereiztua eskainiko duena ustategien tamainaren arabera.
2. Udal planak paisaiari dagokion jasangarritasun irizpideen arabera egokituak, ardatz bat dela paisaiaren dibertsitatea eta funtzio-aniztasuna kontserbatzea, kontserbazioaren eta garapenaren arteko orekari eutsiz, eta mantenduz ekosistemek eskaintzen dituzten zerbitzuak eta ingurumen-ondasunak, eta orobat bilakaera libreko espazioak, erabilera anitzekoak...
3. Paisaia-kalitatearen zigilu bat definitzea, kalitateko paisaiak kontserbatzearekin eta mantentzearekin lotutakoa, horretarako sustatuz paisaia-integrazio proaktiboa eta propositiboa, zigortzailea baino gehiago. Zigilu horrek lurraldearen kalitatea eta erantzukizuna azpimarratuko ditu, besteen aldean, eta gainera, finantzaketa-ildoak edo zerga arloko neurriak erraztu edo baldintzatzeko balio izango du:
 - Konpentsatzeko modalitateak ezartzea ekoizpen-sistema tradizionala mantentzeagatik, ekoizpen-kostu handiagoak konpentsatzeko.
 - Garrantzitsua da ekimenen bidez aitortzea paisaiaren balio produktiboa eta ondasunak era egokitan baina integratuan ekoizten ari den ekoizlearen lan eredugarria. Hala ere, ez du izan behar diruz lagundutako sistema bat, salmentak konpentsatuko dituen ekoizpen-kostuen azpitik. Etekin gehigarriak lortu behar ditu.
 - Neurri fiskalak ezarri behar dira, pizgarriak eskaintzeko kontsumitzaileei, merkatariei, banatzaileei eta bitartekariei, beraien produktuen hainbesteko portzentaje bat izan dadin paisaiarekiko konprometitua.
 - Formula egokiak bilatu behar dira “kalitateko paisaia kontsumitzeagatik ordaintzea” sustatzeko. Eta kontsumo libreko produktuekin pizgarri fiskalak eskaintzea, “kalitateko paisaia” zigilua duten produktuak merkaturatzen dituzten enpresentzat.
4. Arautegien esparruan aldaketak sartu behar dira, lurzatien sistema babesteko eta haien arteko mugak eratzten dituzten osagaiak kontserbatzeko.

GAG.3 Paisaia-irizpideak sartzea nabe isolatuak eta eraikin exentuen eraikitzeak lizentzien kudeaketan.

1. Paisaia-integraziorako irizpideak ezartzea, loteslea izango dena baimenak eta lizentziak emateko garaian. Jardunbide Egokien eskuliburu bat prestatzea, loteslea izango dena lizentziak eta baimenak emateko garaian.
 - Diseinurako alternatiben bilduma bat osatzea, ahal den neurrian paisaia integratuko dena, alegia, ahal den gutxien nabarmenduko dena.
 - Paisaia-integraziorako eta azpiegiturak lurraldean banatzeko tipologiak.
 - Sistema jasangarriak integratzea: uraren aprobetxamendua, eguzki-energia, mindak...

NABE ISOLATUEN ETA ERAIKIN EXENTUEN PAISAIA-INTEGRAZIORAKO GOMENDIOAK

Helburua: ez aldatzea, ez inguruaren paisaiaren kalitatea, ez eta paisaia-unitateen nortasuna ere.

Azpiegitura berria ahal den gutxien nabarmentzea, dela haren ikus-irisingarritasuna onargarria delako, dela haren diseinuak ez diolako arreta ematen ikusleari.


KOKAPENA

- Hiri-gune tradizionalei eta herrixkei edo ondare-elementuei eragiten dieten kokalekuak ez aukeratzea. Gutxienez 1.000 metroko eremuak sarbideetan eta 850 metrokoak gainerako perimetroan; txikiagoa izan daiteke, egiaztatzen bada ez dagoela ikusizko eraginik, oztopoak daudelako.
- Ez aukeratzea ikus-irigarritasun handiko kokalekurik edo ikus-babeseko PIBerik.
- Ikuspegi-esposizio handiko eremurik ez aukeratzea.
 - Ez igotzea mendi-magalaren erditik gora, zabalgunekak bilatzea.
 - Haran-hondoetan, mendi-magala ukitzen duten trantsizio-eremu perimetralak aukeratzea.
 - Ez aukeratzea gailurrik edo gailentzen den eremu topografikorik.
 - Ez aukeratzea plataforma, mahai edo zelaien ertzak, beheko kokalekueetatik ikusten badira.
- Topografiagatik integrazio erraza duten kokapenak aukeratzea.
 - Malda leuneko lekuak, jatorrizko topografiara egokitzeak aukera hobe eskaintzen dutenak, lurzorua lautzeko lur-mugimenduak saihesteko, eta topografiak markatutako lerro nagusiak ez hausteko.
 - Eraikitzea sestra-lerroei jarraikiz, edo tamaina txikiko terrazak egitea. Topografiara egokitzeak tokiko estrategiak aztertzeak irizpide egokiagoak eta ekonomikoagoak ematen ditu. Beharrezkoa bada terraza edo lur-erazketa egitea, nabe edo instalazio berriaren integrazioarako elementu gisa erabili behar da.
- Aukeratuko ditugun kokapenek aukera eman behar dute jatorrizko osagaiak mantentzeko, berezko landaredia, soroak, fruta-arbolak, heskaiak, erakinaren diseinuan integratuak. Oso gomendagarria da landaredia naturalaren hurbileko diseinuak erabiltzea, hura kaltetu gabe.
- Alboan pistak edo landa-bideak dituzten eremuak aukeratzea, eta linea elektrikoak ere bai, ez eragin behar izateko ikusizko inpaktu negatiborik (lur-mugimenduak, zuhaitzak moztea, bide berriak irekitzea edo hornidura-sareak instalatzea).

DISEINUA


Bolumenek, alturek, materialek, lehendik dauden eraikinekin bateragarriak izan behar dute:

- Eraikinaren diseinuak lurralde horretako irizpide tradizionalak bete behar ditu, tipologia tradizionalari jarraikiz, bolumetria, material, akabera eta arkitektura-osagaien ezarpenari dagokienez. Herrietako arkitektura-tipologiak, askotan, ondare eta nortasun aldetik interes handikoak dira, eta osagai integratuak izaten dira. Ez du ekarri behar eredu estruktural bat, jatorrizkoa ez bezalako eraikuntza-teknika batekin, edo bestelako materialekin, horrek ekar ditzakeelako nahi ez diren ondorioak.
- Diseinua egiteko teknikak izan behar du Bateratzea-Fusioa-Mimetizazioa: txertatzen den paisaiaren ezaugarri diren formak eta koloreak erabiliz. Lehendik dauden ereduak identifikatuz gero, horiekin bat datozen geometrieekin diseinatzeak aukera zabaltzen da. Antzeko testurak eta koloreak dituzten materialak erabiltzeak proiektua ingurunearekin bateratzea lortzen du.
- Bestelako teknikak:
 - Bolumen egokiak eta orekatuak. Eraikin estuetan ur bakarreko estalkiak aukeratu behar dira, eta egoera lauetan, bi uretako estalki simetrikoak ezartzeak izan behar du irizpide orokorra.
 - Eraikin tradizionaletan nagusi diren koloreak aukeratzea, edo, halakorik ezean, lurzoruan nagusi diren kolore sortarekin lotutako koloreak.
- Altura txikiko eraikinak. Beharrezkoa bada, nabearen edo eraikin exentuen zati bat lurperatzea planteatu behar da, bat etorrarazteko eraikin tradizionalen tamainarekin.



Jardunbide Egokiak Paisaiarentzat: Gidalerroak (2007). Proiektua PAYS.DOC. Argitalpena: 2007.

Gidaliburu hau Interreg III Medoc proiektu europarraren baitan prestatu zen; oso gidalerro kontrastatuak aurkezten ditu, lurraldean gauzatu nahi den esku-hartzea paisaiaren arloko irizpideei atxikia izan dadin.



GUÍA DE BOAS PRÁCTICAS PARA A INTERVENCIÓN NOS NÚCLEOS RURAIS

https://cmaot.xunta.gal/c/document_library/get_file?folderId=125772&name=DLFE-26615.pdf

GAG.4 Abeltzaintza estentsiboa eta beste hainbat erabilera kontserbatzea, landa-paisaiaren zati bizia direlako eta lurraldea kontrolatzeko modua direlako, zerbitzu ekosistemikoak zaintzeko eta sute-arriskuak murrizteko.

1. Tokiko abeltzainen ekimenei laguntzea: lurraldean integratutako abeltzaintza-aprobetxamendu arrazional eta integratua bermatzeko, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako paisaiak mantentzeko, gomendagarria da gizartearen parte-hartzea sustatzea. Tokiko abeltzainen ekimenak lagundu, hobetu eta gauzatu behar dira.
2. Bertako arrazako abere-taldeak modu estentsiboan mantentzea sustatu behar da, abeltzain txikientzako laguntzak emanez edo, helburu horretara iristen ez bada, izaera "publikoko" abere-taldeak sartuz. Udalaren jabegoko taldeak erostea, mendia babesteko eta kontserbatzeko neurri gisa.
3. Azpiegiturak hobetzea, bai bazkaleku eta larreetara iristeko, bai etxola edo artegi duinak izateko, bai era egokian banatutako ur-puntuak izateko. Ur-putzuak ezarriko dira, euri-ura biltzeko gaitasuna duten lekuetan. Era arrazionalen kudeatuko dira ildoko laborantzak leku maldatsuetan, lurzorua galera ez errazteko.
4. Nekazaritzako aprobetxamendu baztertuak bazka-laborantzara eraldatzea sustatzea, abeltzaintza estentsiboari laguntzeko.
5. Bazkalekuen hobekuntza. Kalitatea handitzeak lehiakortasuna hobetu dezake eta sasiz betetzeko prozesua galaraz dezake.

10 BASO-PAISAIA PRODUKTIBOAK

Gizartea kontzientea da mendiak, edonoren jabetzakoa dela ere, lehengaien iturria izateaz gain, ingurumenari lotutako hainbat funtzio betetzen dituela, besteak beste, lurzorua eta ziklo hidrologikoa babestea, karbono atmosferikoa finkatzea, aniztasun biologikoaren erreserba, paisaia mantentzea... eta horiez gain erabilera publikoa eta aisialdiari lotutako balioak eskaintzen ditu. Aurreko hitz horietan deskribatutako onura horietatik guztietatik, lehengaien iturria izatea da jabearen aprobetxamenduko ondasun pribatu bakarra. Gainerakoak ondasun publikoak dira, jabeak ez du haien gaineko nagusitasunik (beste herritar guztiek bezala aprobetxatzen dituzte), eta horiek osatzen dituzte kanpo-efektuak (Michel Rodríguez, M. 2006).

10.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Hazkunde azkarreko zuhaitz-landaketak ez dira hain ugariak Eremu Funtzionalean, Gipuzkoako eta Bizkaiko mendien aldean, baina, hala ere, helburu gisa jasotzen dira.

Antolamendua→ OAF.1. Paisaia eta ekologia aldetiko hobekuntza sustatzea baso-landaketetan, ikusizko irisgarritasun altuko enklabeetan.

Kudeaketa→ GAF.1. Paisaia eta ekologia aldetiko integrazio-irizpideak ezartzea pixkanaka, baso-landaketa intentsiboen antolamenduan.

10.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

OAF.1 Paisaia eta ekologia aldetiko hobekuntza sustatzea baso-landaketetan, ikusizko irisgarritasun altuko enklabeetan.

1. Gomendatzen da lehenatasunez hobekuntza bisuala ematea “Paisaiaren Kalitateko Helburuen II. Mapa” txostenean kartografiatzen diren eta ikuspegi-esposizio handikoak diren baso-landaketei.

- Landaketen irregulartasuna areagotzeko neurriak ezartzea, baso-ertzetan ekotonoak garatuz. Hori sustatzeko gomendatzen da mozketak hautakorrak egitea eta bertako espezieak sartzeko. Helburua da zuhaitzen erreserbako eremuak lortzea baso-ertzetan, bertako espezieak bilduz eta garrantzia emanez banaketa irregularrari eta masen garapenari.
- Zuhaitz helduen erreserbako eremuak zehaztea, lagungarriak izan daitezkeen pasabide ekologikoen sarea hobetzeko; ingurumen eta ekonomia aldetik balio altuagoa duten espezieen erabilera areagotzea; eta muturrera eramatea zuhertasun-neurriak, egurraren aprobetxamendurako landaketetan, lurzorua eta erregimen hidrologikoa arriskuan ez jartzeko.
- Ikus-irisgarritasun altuko suebakien mugak berriro definitzea. Proposatzen da ertz irregularrak sortzea, zenbait lekutan suebakien ertzak zabalduz, eta erabilera mistoak ezarri, bazkaleku eta suebaki gisa.
- Sarbideen azpiegiturak. Bideei dagokienez, kontserbatzeko eta mantentzeko lanak zentratu behar dira plataformaren zabalkuntza edo trazatuaren aldaketa inplikatzeko ez duten jarduketetan, eta pisten sarea eraginkorra izatea, trazatu bikoiztuak ezabatuz. Gomendatzen da ez baimentzea bide edo basoko pista berriak egitea, non ez den horiek egitea funtsezkoa dela oihan-masa babesteko eta kontserbatzeko. Salbuespenezko kasu horietarako gomendatzen da ireki behar diren bide berrien baimena emateko baldintza izatea trazatuaren eta horri lotutako eraikuntza-osagaien diseinua paisaia-integraziorako irizpideen arabera izatea.

GAF.1 Paisaia eta ekologia aldetiko integrazio-irizpideak ezartzea pixkanaka, baso-landaketa intentsiboen

antolamenduan.

1. Aldaketak arautegien esparruan, mendi guztien kudeaketa eta antolamendua errazteko, irizpide jasangarriak eta paisaiaren aldetik integratuak erabiliz, lurraldean inplikaturik dauden eragile guztiak kontuan hartuta.
2. Baso-landaketen ikus-eremuaren eta ingurumenaren hobekuntza eta kalitatea lortzeko planak eramatea antolamendu proiektuetara.
3. Aldaketak jabetza publikoko mendien antolamenduaren proposamenean, paisaian integratutako aprobetxamenduak bilatuz, txandaketa motzak saihestuz, plurispezifikoak eta bertako espezieak erabiliz.
4. Kudeaketa jasangarria eta paisaia aldetik integratua sustatzea herri-lur eta jabetza publikoko guztietan (udalak nahiz aldundia). Ildo horretatik, gomendagarria da aurreko puntua betetzea baldintza izatea mendi publiko horien kudeaketarekin erlazionatutako edozein dirulaguntza jasotzeko.
5. Baso ziurtagiridunak mantentzearekin eta sustatzearekin lotutako neurri fiskalak ezartzea gomendatzen da, autonomiari dagozkion tarteetan kenkariak ezarri ahal izateko, erabilera horien egiaztapenagatik.
6. Gomendatzen da baso-baliabideen aprobetxamendua mantentzea, haien kontserbazioa eta egun dituzten paisaia-balioak bermatzeko. Horretarako basoa kudeatu behar da espazio ekonomiko-kulturala-ekologiko gisa, eta baliabide naturalak aprobetxatzeko sistema jasangarriak bultzatu. Helburuak:
 - Gomendatzen da horien garrantzia azpimarratzea, masaren egoera ona zaintzeari lagunduko dioten finantza-baliabideak lortzeko.
 - Gomendatzen da ekoizpen jasangarriaren zigiluei lotutako neurri fiskalak ezartzea, autonomiari dagozkion tarteetan kenkariak ezarri ahal izateko, erabilera hori egiaztatzeagatik.
 - Gomendatzen da paisaiarekin bateragarriak diren baso-masekin lotutako erabilerak sustatzea, besteak beste ehiza, egur-bilketa, fruituak, perretxikoak, onddoak... eta erabilera horiek arautzea. Teknikariak eta basozainak prestatu behar dira, arloa profesionalizatu eta jardunbide egokiak zabaltzeko, baliabide horiek kontserbatzeko eta hobetzeko (landare osasungarriak, usain-belarrak, boilurra, perretxikoak, etab.), eta orobat mendiak.
7. Mendi publikoetatik eratorritako produktu naturalen aprobetxamenduaren eta merkaturatzearen berariazko legediaren oinarriak ezartzea.

11 ONDARE, KULTURA, SINBOLOGIA ETA IDENTITATE ARLOKO BALIABIDEAK

Paisaia ezin da ulertu gaur egun arte bertan bizi izan diren herrietatik jasotako ondare-baliabideak, kultura-baliabideak eta baliabide sinbolikoak jaso gabe, horietako askok lotura identitario handia baitute gaur egungo biztanleekin. Paisaiaren funtsezko osagai horiek sail eta lantalde espezializatuen babespean daude gehienbat, ondare erlijiosoaren, militarren, arkitektonikoaren, historiaurrearen edo etnografikoaren elementu gisa inbentariatuta edo katalogatuta. Eremu Funtzionalean inbentario zabala dago, ebaluatua edo azterlanak egiten hasitakoa, paisaia diren baliabide gehienak bilduta, bai ondare eta kultura arlokoak, bai sinbolikoak. Haietako askok figura babesgarriak dituzte, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak babesturik edota Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 26ko 16/1985 Legearen babespean. Beste batzuk Foru Aldundiak inbentariatuak daude, hala nola elementu sinbolikoak eta etnografikoak, eta *Arabako Ondare Elementu Txikietan* jasota daude.

Gauzak horrela, legaren babes zorrotza pean dago, eta adostasun sozial zabala du, hura kontserbatzeko edo mantentzeko tramiteak bezalaxe. Alderdi horri dagokionez, paisaiaren katalogoak sentsibilizazio-lana egin dezake, eta paisaia ezaugarritzen duten ondare- eta kultura-baliabideen nahiz baliabide sinbolikoen dimentsio soziala, historikoa, espirituala eta sinbolikoa ezagutu. Gizarte-eskari egokirik gabe, zaila izango da paisaia-intereseko ondare-elementuak eta -kokaguneak kontserbatzea, berreskuratzea, bisualki hobetzea edo haien balioa nabarmentzea, eta ezinbestekoa izango da kultura-ondarea babesteko eskumena duten edo esku hartzen duten administrazioen edo erakundeen arteko sinergiak koordinatzea eta ezartzea. Une honetan, tramitazioan da Kultura Ondarearen arloko Lurralde Plana; horrenbestez, Katalogo hau haren ondorioei lotuko zaie, huraxe onesten dutenean. Gune horiek aukeratzeko, faktore sozioekonomikoak soseguz baloratu behar dira, eta horren barnean, parte-hartze publikoko prozesua egin behar da. Bestalde, paisaiaren ikuspuntutik, garrantzitsuagoa da elementuaren edota kokaturik dagoen kokagunearen balioa nabarmentzea, huraxe birgaitzea baino. Hau da, hondaturik dagoen gazteluak ez du zertan ikusizko balio txikiagoa izanik, egoera horretan iraun bitartean, eta ingurunea degradatua ez dagoen bitartean. Katalogoak gomendatzen du ikus-irigarritasun handia duten guneen balioa nabarmentzea, bai eta paisaiarekin lotura estua dutenena ere.

Dena dela, paisaia-kontserbazioak elementuaren babes zorrotzaz harago jo beharko luke. Izan ere, bestelako alderdiak hartu behar dira kontuan elementua babesteko, haren jatorrizko izaera mantentze aldera, hala nola zer ikus-espaziotan kokaturik dagoen, berehalako ikuspegiak edota bide historikoetatik hautematen den paisaia, hala nola Donejakue Bidetik.

Azkenik, nabarmendu behar da giza kokalekuak baliabide kulturalen eta identitarioen parte direla, argi eta garbi. Izan ere, haien barruan, ondare osagai asko barnebilduta daude, bai eta osagai arkitektonikoak eta sinbolikoak ere. Berariaz aztertu dira erabileren ohiko erregulazioari erantzuteko (4. atala).

11.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Babesa → PRP.1 Paisaia diren ondare, kultura, sinbologia eta identitate arloko baliabide nabarmenak babestu eta mantentzea.

Kudeaketa → GRP.1 Ondare, kultura, sinbologia eta identitate arloko baliabideak bere osoan zaindu eta mantentzea.

Kudeaketa → GRP.2 Kultura-kokagune jakin batzuk egokitzea.

Kudeaketa → GRP.3 Ondare industrialaren lehengoratzeta indartzea.

11.1 NEURRIAK ETA EKINTZAK

PRP.1 Paisaian diren ondare, kultura, sinbologia eta identitate arloko baliabide nabarmenak babestu eta mantentzea

1. Paisaian den paisaia kultural nabarmenaren babesa eta kontserbazioa indartzea.
 - Halako kultur osagai oso nabarmenekin ikus-harremana dela-eta identifikatu diren kokaguneen babesa eta kontserbazioa indartzea, hots, katalogo honetan, PKHen kartografian eta PUko fitxetan identifikatuak eta kasuan kasuko PIBEan txertatuak.
 - Neurri jakin batzuk txertatzea gomendatzen da osagaiek araudietan duten babesean, haien ikus-pertzepzioaren osotasuna kontuan hartzeko.
 - Bide historikoak eta ibilbide nagusiak zaindu eta haien balioa nabarmentzea, eta planeamenduetan txertatzea, bide historikoetatik bertatik dagoen pertzepzioa babeste aldera.

GRP.1 Ondare, kultura, sinbologia eta identitate arloko baliabideak bere osoan zaindu eta mantentzea.

1. Ikus-irigarritasun handia duten edo paisaiarekin lotura estua duten ondare-elementuen balioa nabarmentzea gomendatzen da, Katalogo honetan identifikatuak eta kodetuak: *paisaian diren ondare, kultura, sinbologia arloko baliabide nabarmenak*.
2. Identifikatutako elementu historiko, sinboliko eta identitarioen identifikazioa eta seinaleztapena sustatzea, eta ibilbide-sarearekin nahiz paisaia ikusteko behatokiekin duten lotura. Haietako gehienak identifikatuta daude eta behar bezala seinaleztaturik.
3. Ondare Katalogoen berrikuspenean, paisaiaren aldagaia sartzeko hura kontserbatzeko eta kudeatzeko ezartzen diren gidalerroetan, inplikaturako sailekin koordinatu beharko dena.
4. Elementu horietan, berrerabilpena eta erabilera berriak egokitzeko plan bat sustatzea, haien balioa nabarmentzeko.
5. Barruti bakoitzean dauden eraikin tradizionalak eta/edo bereziak kasuan kasuko udal planeamenduetan txertatzea, aurrez udal katalogo bat prestatuta, eta era berean, haien birgaitzea eta erabilerak berritzea bermatuko dituzten hirigintza-baldintzak arautzea, bai eta onartutako eraikuntza-materialak eta hirigintza-zerbitzuei dagozkien irtenbideak ere.
6. Haitzulo, borda eta eraikuntza etnografiko adierazgarrienak lehengoratzeko planak ezartzea, erakunde pribatuak eta publikoak inplikaturak, erabat hondatu ez daitezen, euskal herrien kulturaren eta historiaren lekuko.

GRP.1 Kultura-kokagune jakin batzuk egokitzeta.

1. *Zadorra ertaina-Santa Catalina PIBEO2rekin* lotutako egokitzapen-proiektu zehatza

GRP.2 Ondare industrialaren lehengoratzeta indartzea.

1. Araiako Burdinolekin lotutako egokitzapen-proiektu zehatza *ELGEAMENDI URKILLA PIBEP9an*

12 PAISAIA NATURALAK

Araba Erdialdean, horien ondare naturalak Lurraldearen azalera handi samar bat hartzen du, eta haien ezaugarria da heterogeneotasuna, biodibertsitatea eta kalitate bikaina, testuinguru biogeografikoaren eta lurraldea kudeatzeko dinamika historikoen ondorioz. Ondare hori osatzen dute baliabide fisiografikoek (mendilerroak, mendiak eta muinoak) paisaia litologikoek eta higadurazkoek (karkabak, glerak, harkaitzak eta malkarrak), baso-paisaiak (hariztiak, pagadiak eta hostogalkorreko beste hainbat, erkameztiak eta ameztiak, pinu gorriko pinudiak eta beste konifera azpimediterraneoak, pinudi mediterraneoak eta bestelako koniferak, artadiak, sastrakak eta larreak) edo ur-paisaiak (urtegiak, aintzirak, hezeguneak, ibaiak eta ibaiertzak).

Paisaia naturalaren zati handi bat ingurumen-babeseko hainbat arautegiren babespean badago ere, oraindik ere hainbat lurralde-eremu kontserbatu beharko lirатеke, bai haien nortasuna eta kalitatea zaintzeko, bai eskaintzen dituzten zerbitzu ekosistemikoak bermatzeko. Aurrean dugun erronka paisaia naturalen babesa da: ingurumenaren babesa osatzea edo zabaltzea paisaiari dagozkion alderdiekin, era koordinatuan jarduera ekonomiko jasagarriekin, ziurtatuz dagoeneko finkatuta dauden erabileren garapena mantentzen dela, paisaia horien kontserbazioarekin bateragarriak diren jasagarritasun-irizpideekin

Kasu batzuetan, kontserbazioak ikus-babeserako ekintzak eskatzen ditu, batez ere haien kalitate altu bikainari (balio eta berezitasun altukoa) eranstean zaielako hauskortasun handia. Horrelakoak dira, esaterako, gailurrak eta gailur-lerroak, harkaitzak, malkarrak, agertoki-hondoak edo mendilerro-unitateen ageriko magalak. Horien artean nabarmentzen dira zenbait Paisaia Unitateren agertoki-hondoak osatzen dituzten mendi eta muinoen multzoak, batzuetan paisaiaren baliabide inmaterial gisa hartzen direnak, bertako biztanleekin duten lotura historiko eta etnografikoagatik. Babeserako arau espezifiko batekin daudenean ere, Natura-gune Babestuetan kokatzen direnean, paisaiaren aldetiko babesik ez dute, eta hori izaten da osagai hauskorrenetako bat. Paisaia-balioak gordetzeko beharrezkoa da lurralde- eta hirigintza-planteamenduek erabilerak arautzea eta mugatzea, ukatu gabe ingurumen-plangintzako tresnetan aurreikusten dena, orduan, tresna horiek ezartzen dituzten erabilera eta jardueren arautegia aplikatuko baitzaie. Halako garrantzia izanik, PIBE identifikazioa eman zaie.

Berariazko babes-neurriak eskatzen dituen paisaia naturalarekin aurrera jarraituz, bereziak direnak topatzen ditugu, halakoak baitira zenbait zuhaitz-masa, unada eta baso-uharte, oraindik ere laborantza-lur zabalen artean isolatuak irauten dutenak, edo paisaia eta azpiegitura berdearen lotura diren zenbait kokagune.

Kontrako zentzuan, formazio eta baso autoktono ugariren kontserbazioa formulatzen da, eta hori lortu daiteke kokatzen diren natura-guneen edo paisaia-unitateen beraien kudeaketaren bidez, orain aurkeztzen duten babes-maila handitu gabe.

Ur-baliabideei dagokienetz, zera azpimarratu behar da, Natura 2000 Sarearen baitan babestuta daudenez gain, ur-azalera gehienak babestuta daudela, gune babestu gisa, Uraren Euskal Agentziaren aldetik, babes horrek haien paisaia-ezaugarrien kontserbazioa jasotzen ez badu ere. Hala ere, horiek leheneratzeko, beharrezkoa da nekazaritzako jardueragatik orain eraldatuta dauden ekosistemak leheneratzea, eta horretarako itzularazi behar dira ur-ibilguaren okupazioa eta uren kutsapena. Beraz, ibaiertzak leheneratzeko helburua PKH batetik haratago doa, eta hor esku hartu behar dute, bai arroko erakundeek, bai ingurumen-agintariek ere. Baina zenbait kokagunek paisaia aldetik duen garrantziak merezi du haien hobekuntza edo egokitzapenerako ekintzak planteatzea. Esate baterako, herria zeharkatzen duen ibaiaren ibaiertzak, edo zenbait ibai-tarte, beren ur-ibilgua, orain nekazaritza-paisaia gisa zehaztuta dagoena, leheneratzeko premiazko neurriak eskatzen dituztenak.

Hobekuntzari edo leheneratzeari dagokienez, zenbait paisaia natural leheneratzea, ingurumen-balioa alde batera utzita, gizarteak gehien eskatzen dituen helburuetakoa da. Baso, ibaiertz eta beste hainbat natura-eraketa leheneratzeko neurriak eta ekintzak jasotzen dira plan eta tresna desberdinetan, esaterako, EAEko Ibaiertzen eta Erreken Lurralde arloko Planean. Gizartean oso zabalduta dagoen eskaera da, ingurumenaren premia nabarmena izateaz gain. Neurri horiek nahikoa dira, nolabait ongi kontserbatu den eta natura leheneratzeko ahal handiak dituen lurralde baterako. Bai gomendatzen da, ordea, dinamika natural horiek areagotzea ikus-irisgarritasun handiko magal soilduetan, horiek hobekuntzak gizarte-onura handia ekarriko duelako.

12.1 PAISAIAREN KALITATEKO HELBURUAK

Paisaia natural bereziaren babesa

- **PN.1** Paisaia naturalaren (harkaiztsua eta higakorra) babesa sustatzea.
- **PN.2** Ibai, ibaiertz, hezegune eta ur-geruzen babesa, kontserbazioa eta hobekuntza sustatzea.
- **PN.3** Lotura-kokaguneen babesa sustatzea (Azpiegitura Berdea -IV-).
- **PN.4** Paisaian zuhaitz-masa berezien babesa sustatzea.
- **PN.5** Berdegune bereziak babestea, kudeatzea eta ezagutaraztea.

Paisaia naturalaren babesa, ikus-hauskortasun handiko kokaguneak

- **PN.6** Nortasun handiko harkaitz eta muinoen babesa eta ikuspegiaren kontserbazioa sustatzea.
- **PN.7** Agertoki-hondoko kokaguneen babesa sustatzea.
- **PN.8** Ikuspegi-esposizio handiko kokaguneen babesa sustatzea.

Paisaia naturalaren antolamendua.

- **ON.1.** Ibaiertzak eta hezeguneak lehengoratzeta.
- **ON.2.** Ikus-irigarritasun handiko kokaguneetako bazkalekuen eta sastrakaren paisaia eta ekologiaren hobekuntza sustatzea.

Paisaia naturalaren kudeaketa.

- **GN.1.** Menditik ateratzen den produktu-sorta zabaltzea eta haien gizarte-erabilerarako egokitzea, baso natural autoktonoen karga handiagoa baimenduz.
- **GN.2.** Hazitik sortutako baso autoktonoen lehengoratzeta sustatzea, landatutako basoen edo espezie exotikoen gainetik.
- **GN.3.** Ibaiertzak lehengoratzeta, nekazaritza-paisaiak mugatuz.

Paisaia naturalaren garrantzia azpimarratzea eta ezagutaraztea.

- **D.N1.** Ur-baliabideen menpekoak diren elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko funtzio ekosistemikoek eta beraien sinergiekin duten garrantzia azpimarratzea eta ezagutaraztea.

12.2 NEURRIAK ETA EKINTZAK

PN.1 Paisaia naturalaren (harkaiztsua eta higadurazkoa) babesa sustatzea

2. Paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzea dagozkion tresnetan, 'paisaia-babesa' azpisailkapena emanaz.
 - Gomendatzen da inpaktu handiko azpiegituren kokapena mugatzea, batez ere telekomunikazio-instalazioak, haize-parkeak eta paisaia hondatu dezaketen bestelako osagaiak agertoki-hondoen gailurretan jartzea. Nolanahi ere, gomendatzen da horiek galaraztea babeseko PIBEetan kokatzen diren gailur eta gailur-lerro soilduetan.

PN.2 Ibai, ibaiertz, hezegune eta ur-geruzen babesa, kontserbazioa eta hobekuntza sustatzea.

1. Ibaien eta ibaiertzen multzoa babestea gomendatzen da, horretarako erabiliz dagoeneko ingurumen-arauegietan babestuta dauden tarte ugarien antzeko arauategiak erabiliz. Tarte horietatik gehienak Natura 2000 Sarean daude, eta haien kokapena dagoen paisaia-unitatearen fitxan ageri da.
2. Babes-irizpideak hirigintza-tresnetan bete beharra sustatzea.
3. Halakorik ez badago, babes-neurriak ezartzea ibai, urtegi, ur-azalaren eta haien eragin-eremu hurbilekoen plangintzan, ekologia-lotura gisa duten interesagatik eta haien paisaia-balioagatik.
4. Paisaia-integratioko neurriak sartzea ibai-tarteak ukitzen edo zeharkatzen dituzten obra publikoetan.
5. Ibaiertzak eta ibai nahiz erreketako bazterreko landaredia naturala babestea, gizakiaren eskuak haien naturaltasuna edo paisaiaren kalitatea eraldatzeko asmoa badu.
6. Trantsizio-gune libreak erreserbatzea ibaiertz eta hiri-garapen berrien artean.

PN.3 Lotura-kokaguneen babesa sustatzea (IV).

1. Paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzea dagozkion tresnetan, paisaia-babesarekin lotutako azpisailkapena emanaz.
 - Aldaketak arautegi-esparruetan, babesa sustatzeko erabilera-aldaketaren aurrean.

PN.4 Paisaian zuhaitz-masa berezien babesa sustatzea.

1. Paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzea dagozkion tresnetan, paisaia-babesarekin lotutako azpisailkapena emanaz.
 - Aldaketak arautegi-esparruetan, babesa sustatzeko erabilera-aldaketaren aurrean.

PN.5 Berdegune bereziak babestea, kudeatzea eta ezagutaraztea

1. Paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzea dagozkion tresnetan, paisaia-babesarekin lotutako azpisailkapena emanaz.
 - Aldaketak arautegi-esparruetan, babesa sustatzeko erabilera-aldaketaren aurrean.

PN.5, PN.6, PN7 Paisaia naturala babestea, ikus-hauskortasun handiko kokaguneak

1. Paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzea dagozkion tresnetan, paisaia-babesarekin lotutako azpisaillkapena emanaz.
 - Aldaketak arautegi-esparruetan, babesa sustatzeko erabilera-aldaketaren aurrean.
 - Gomendatzen da inpaktu handiko azpiegituren kokapena mugatzea, batez ere telekomunikazio-instalazioak, haize-parkeak eta paisaia hondatu dezaketen bestelako osagaiak agertoki-hondoen gailurretan jartzea. Nolanahi ere, gomendatzen da horiek galaraztea babeseko PIBEtan kokatzen diren gailur eta gailur-lerro soilduetan.

ON.1 Ibaiertzak eta hezeguneak lehengoratzeari

1. Biodibertsitatea areagotzeko proiektuak gauzatzea. Proiektu ugari gauzatu dira dagoeneko, bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren aldetik, bai EAEko erakunde autonomoaren aldetik ere. Hala ere, zenbait paisaia-unitatetan eta PIBEtan adierazten diren zenbait ibaiertz paisaiaren ikuspuntutik egokitzea lehentasunezkoa jotzen da.

ON.2 Ikus-irigarritasun handiko kokaguneetako bazkalekuen eta sastrakaren paisaia eta ekologiaren hobekuntza sustatzea

1. Basoberritzeko jarduketa puntualen programa.

GN.1 Menditik ateratzen den produktu-sorta zabaltzea eta haien gizarte-erabilerarako egokitzea, baso natural autoktonoen karga handiagoa baimenduz

1. Gomendatzen da horien balioespena baliabide ekonomiko gisa, ur-baliabideen hartzaile diren aldetik sortzen dituzten etekinen zati bat era solidarioan biltzeko aukera izateko, masaren egoera onari eusten laguntzeko.
2. Basoen mantenuarekin eta sustapenarekin lotutako neurri fiskalak ezartzea gomendatzen da, erabilera hori egiaztatzeagatik kenkariak eskaini ahal izateko.
3. Baso-masarekin lotutako jarduerak sustatzea gomendatzen da, paisaiarekin bateragarriak badira, batez ere ehiza eta hainbat bilketa, besteak beste, egurra, fruituak, perretxikoak, onddoak, etab., haien erabilera arautuz:
 - Basozaintza-zerbitzuak eta teknikariak trebatu behar dira baliabide horien kontserbazioan eta hobekuntzan (sendabelarrak, usain-belarrak, boilurra, perretxikoak, etab.) eta oro har mendien hobekuntzan, arloa profesionalizatu behar da, eta horiei lotutako jardunbide egokiak ezagutarazi behar dira.
 - Mendi publikoetatik eratorritako produktu naturalen aprobetxamendu eta merkaturatzearen inguruko berriak legediaren oinarriak ezartzea.

GN.2 Hazitik sortutako baso autoktonoen lehengoratzeari sustatzea, landatutako basoen edo espezie exotikoen gainetik.

1. Espezie autoktonoz osatutako basoak sustatu behar dira, batez ere *quercus* familiakoak, erresilientzia handia eta egokitzeko gaitasun handia erakutsi dutelako klima-aldaketaren aurrean. Horregatik, etorkizuneko aldaketekin hobekien egokitzen diren espezieak erabiltzea proposatzen da, eremu periferikoak eta beste hainbat eremu egoki basoberritzean, era naturalean zabaldu daitezkeen.

GN.3 Ibaiertzak lehengoratzeari, nekazaritza-paisaiak mugatuz

1. Ibaiertzeko landarediaz osatutako eremu jarraitu baten gutxieneko zabalera ezartzea ibaien luzeran; ur-ibilguaren bi aldeetan utzi behar da, beren funtzio ekosistemikoak bete ditzaten, batez ere korridore berde gisa, eta kutsadura geldiarazteko oztopo gisa.
 - Zenbait azterlanen arabera, 10 metrotik gorako zabalera utzi behar da, nitratoak ur-ibilgura iritsi ez daitezen, eta ibaiertzeko landaredia leheneratzeko lehenengo urrats gisa. Jarduketa horrek aukera emango luke ibaien espazioa leheneratzeko, orain halakorik ez dutenen kasuan.
 - Beharrezkoa balitz, ur-ibilgua orain babesten duten lubetak sortu edo urrundu behar dira, uholde-lautadaren barruan isolatutako meandro guztiak hartzeko. Komenigarria da lubeta horiek zenbait puntutan iragazkor bihurtzeko aukera aztertzea, uholde-lautada handitzeko eta leheneratzeko. Babes-eremu berriaren barruan, eta ertzeko eremu jarraituaren atzean, nekazaritzako laborantzen ordez baso-landaketa integratuak egitea sustatu behar da. Haien erresistentzia uholdeen eta urez betetzearen aurrean minimizatzen ditu uholdeak eta gainezkatzeak eragiten dituzten kalteak. Gainera, uholdeak zatitzeko ahalmena dute, eta ez da gutxiestekoa.

D.N1 Ur-baliabideen menpekoak diren elementuak kontserbatzeko eta mantentzeko funtzio ekosistemikoek eta beraien sinergiekin duten garrantzia azpimarratzea eta ezagutaratzea: hegoaldeko ureztapenak esparrutik kanpo

13 INFORMAZIO-KANPAINAK BASOAK BABESTU BEHARRAREN INGURUAN, GIZARTEAREN ZATIA EKARTZEN DITUZTEN FUNTSEZKO ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK BALIOETSIZ.

14 ADIERAZLEAK

Adierazleen proposamen bateratua paisaia-politiken **jarraipen eta ebaluazioa** etengabea egiteko, betiere garapen jasangarriko printzipioekin bat, paisaia-adierazleen bitartez, paisaiaren egoera eta haren bilakaera ezagutu eta baloratze aldera, Kalitateko Helburuei, ekintzei eta proposatutako zehaztapenei begira.

14.1 PAISAIAREN BILAKAERA-ADIERAZLEAK (PBA)

Ereduaren jasangarritasun adierazlea, teknikoa eta zientifikoa, honakoa ebaluatzen duena:

- Aldaketa-azalerak.
- Desagerpen- eta bilakaera-tasa, elementuen eta osagaien paisaia-izaerarekin eta -dinamikarekin lotua.

14.2 GARAPEN- ETA EZARPEN-ADIERAZLEAK (GEA)

Zehazki ebaluatzen dute noraino ezarri diren proposatutako neurriak eta emaitzen ebaluazioa:

- Paisaiaren babesari eta hobekuntzari buruzko ordenantza bideratu eta onetsiak.
- Paisaiaren Katalogoan aurreikusitako figurak barnebildu dituzten HAPO planen kopurua.
- Paisaia hobetu, birgaitu eta egokitzeko plan eta proiektuak (osagaiak, elementuak, PIBE), erauzketa-eremuak lehengoratzeko planak, paisaiaren zabalkundea egiteko planak, etab.
- Zenbat jarduketa egin diren Paisaiaren Katalogoarekin lotuta.
 - Inbertitu den aurrekontua.
 - Azalera.
- Zenbat espedientetan erabili den Paisaiaren Katalogoarekin lotutako informazioa.
 - Zenbat birgaitze lizentzia.
 - Zenbat salaketa hirigintza-ordenantzak urratzeagatik.
 - Emandako akreditazioak eta ziurtagiriak.

15 BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

- ARAMBURU, M. P.; ESCRIBANO, R. et al (2006). Guía para la elaboración de estudios del medio físico. Ministerio de Medio Ambiente.
- ARAMBURU, M. P.; ESCRIBANO, R.; RAMOS, L.; RUBIO, R. (2003). Cartografía del Paisaje de la Comunidad de Madrid. Escuela técnica Superior de Ingenieros de Montes. Consejería de Medio Ambiente, Comunidad de Madrid. Madrid.
- ARAMBURU, P.; ESCRIBANO, R.; LÓPEZ, R.; SÁNCHEZ, P.; (2004): Cartografía del Paisaje de La Rioja. Consejería de Turismo, Medio ambiente y Política Territorial. Gobierno de La Rioja. La Rioja.
- BUSQUETS I FÀBREGAS, JAUME, DIR (2007). Buenas Prácticas para el Paisaje: líneas guía. Proyecto PAYS.DOC. Generalitat de Catalunya. Departament de Política Territorial i Obres Públiques. Direcció General d'Arquitectura i Paisatge
- CANCER, L.A. (1999): La degradación y la protección del paisaje, Ed. Cátedra, 247 pp.,
- COMISIÓN EUROPEA (1999). Estrategia Territorial Europea, hacia un desarrollo equilibrado y sostenible de la Unión Europea. Luxemburgo.
- COMISIÓN EUROPEA (2008). Libro verde sobre la cohesión territorial. Convertir la diversidad territorial en punto fuerte. Bruselas.
- DEPARTAMENTO INTERUNIVERSITARIO DE ECOLOGÍA DE MADRID Y DEPARTAMENTO DE PROYECTOS Y PLANIFICACIÓN RURAL DE LA UNIVERSIDAD POLITÉCNICA DE MADRID (1990). Cartografía del paisaje de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Viceconsejería de Medio Ambiente. Gobierno Vasco
- EDESO, J.M. 2003. Geología y geomorfología. En: Gómez Piñeiro, J. & Sáez García, J.A. Geografía e Historia de Donostia-San Sebastián. Instituto Geográfico Vasco "Andrés de Urdaneta".
- EUROPEAN COMMISSION (1998): Estado de aplicación del Reglamento (CEE) n° 2078/92: Evaluación de los programas agroambientales. Documento de Trabajo, VI/7655/98
- EUROPEAN COMMISSION (1999) Agriculture, Environment, Rural Development - Facts and Figures, Bruxelles.
- EUROPEAN COMMISSION (1999): ESDP. European Spatial Development Perspective Towards Balanced and Sustainable Development of the Territory of the European Union Agreed at the Informal Council of Ministers responsible for Spatial Planning in Potsdam, May.
- EUSKALMET (2015). Climatología del País Vasco. <http://www.euskalmet.euskadi.eus/>.
- GOBIERNO VASCO (2013): Políticas territoriales en la Comunidad Autónoma del País Vasco:
- GOBIERNO VASCO (2016): Catálogo del paisaje y determinaciones del paisaje del Área Funcional De Donostia/San Sebastián Bajo Bidasoa. Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial. Gobierno Vasco.
- GOBIERNO VASCO (2020). Estudios previos y diagnóstico para la revisión del plan territorial parcial del Área Funcional de Álava Central en el contexto de su consideración como biorregión
- GOBIERNO VASCO (2014): Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los márgenes de ríos y arroyos Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.
- GOBIERNO VASCO Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. (2014): Plan Territorial Sectorial Sectorial de Creación pública de suelos para
- GOBIERNO VASCO 2014): Decreto de Paisaje. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. (
- GOBIERNO VASCO (2019): Directrices de ordenación del territorio del País Vasco. Departamento de Medio Ambiente,

Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

- GOBIERNO VASCO. (2014): Plan Territorial Parcial de Álava Central. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. (
- GOBIERNO VASCO (2014): Plan Territorial sectorial agroforestal del País Vasco. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. (
- GOBIERNO VASCO. (2014): Plan Territorial Sectorial Sectorial de Carreteras de Álava Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.
- GOBIERNO VASCO. (2014): Plan Territorial Sectorial Sectorial de energía eólica. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.
- GOBIERNO VASCO. (2014): Plan Territorial Sectorial Sectorial de red ferroviaria en la CAPV Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.
- GOBIERNO VASCO (2014): Plan Territorial Sectorial Sectorial de zonas húmedas. Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.
- GONZÁLEZ-CEBRIÁN TELLO, J. FERREIRA VILLA, M (2013) *Guía de boas prácticas para a intervención nos núcleos rurais*. Consellería de Medioambiente, Territorio e Infraestructuras.
- LÓPEZ HERNÁNDEZ et al (Coord.) (2009). Documentos Informativos Territoriales del Paisaje de la Comarca de La Ribagorza. Documento interno. Departamento de política territorial, justicia e interior. Gobierno de Aragón. Coordinado por LÓPEZ HERNÁNDEZ, R. Sin editar. Zaragoza.
- LÓPEZ HERNÁNDEZ et al (Coord.) (2011). Mapa de paisaje de las comarcas de Aranda, Campo de Borja, y Tarazona y El Moncayo. Departamento de política territorial, justicia e interior. Gobierno de Aragón. Zaragoza.
- LÓPEZ HERNÁNDEZ et al (Coord.) (2014): Paisajes de influencia del ámbito del embalse de Alqueva. Mapa de paisaje de Badajoz. Consejería de Fomento, Vivienda, Ordenación del Territorio y Turismo. Junta de Extremadura.
- LÓPEZ HERNÁNDEZ et al (Coord.) (2014b): Paisajes de influencia del ámbito del Taejo Internacional. Mapa de paisaje de Cáceres. Consejería de Fomento, Vivienda, Ordenación del Territorio y Turismo. Junta de Extremadura.
- LOZANO, PEDRO JOSÉ; LATASA, ITXARO, codir.(2016): Catálogo de paisaje de la Llanada Alavesa
- MICHEL RODRÍGUEZ, M (2006). Pino radiata en la Historia Forestal Vasca Análisis de un proceso de forestalismo intensivo. Sociedad de Ciencias Aranzadi Zientzi Elkartea.
- NATUTECNIA (2010): Plan de prevención de incendios forestales en el entorno de los Montes de Vitoria.
- NAVARRO BAIXAULI, F; CALDERÓN MARTORELL, C; SAPIÑA SALOM, G (2015). Infraestructuras de prevención de incendios forestales Áreas cortafuegos Norma técnica. Dirección General de Prevención, Extinción de Incendios y Emergencias Servicio de Prevención y Extinción. Generalitat Valenciana.
- SÁNCHEZ et al. (2018): Documento de Paisaje correspondiente al Plan de Ordenación Navarra Atlántica (POT 2). Empresa pública Navarra de Suelo y Vivienda, S.A (NASUVINSA).
- SÁNCHEZ et al. (2019a). Documento de Paisaje del Plan de Ordenación Territorial Eje del Ebro (POT 5) y Bardenas Reales de Navarra. Empresa pública Navarra de Suelo y Vivienda S.A. (NASUVINSA).
- SÁNCHEZ et al. (2019b). Documento de Paisaje del Plan de Ordenación Territorial Pirineos (POT 1). Empresa pública Navarra de Suelo y Vivienda S.A. (NASUVINSA).